

KRONIKGUNE - OSASUN ZERBITZUEN IKERKETA INSTITUTUA

MEMORIA ZIENTIFIKOA 2021



Osakidetza




EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD

bioef

Edukia

1. SARRERA	3
2. IZANDAKO MUGARRIAK - 2021EKO LABURPENEA	6
3. ANTOLAMENDUA	12
3.1. Misioa, ikuspegia eta balioak	12
3.2. Gobernu-organoak - Organigrama	14
3.3. 2020-2024 Plan Estrategikoa	18
3.4. Egitura zientifikoa	20
4. BALIABIDEAK	28
4.1 Giza baliabideak	28
4.2. Baliabide ekonomikoak	37
4.3 Baliabide zientifiko-teknikoak: I+G+b-ari laguntzeko zerbitzuak eta plataformak	42
5. I+G+b JARDUERA	44
5.1 I+G+b proiektuak	44
5.2 Sareak eta aliantzak	107
5.3 Irakaskuntza- eta prestakuntza-jarduera	112
5.4 Komunikazioa eta hedapena	116
6. EMAITZAK	130
6.1 Argitalpenak	130
6.2 Inpaktua Euskadiko Osasun Sistemari	141
6.3 Beste batzuk	145
7. KRONIKGUNE INSTITUTUAREN 10 URTEAK	147
8. ERANSKINAK	152
9. GLOSARIOA	162
10. IRUDIAK	165
11. TAULAK	169



1. SARRERA


1. SARRERA

Kronikgune - Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutua elkarte (aurrerantzean, Kronikgune Institutua) Eusko Jurlaritzako Osasun Sailak, Osakidetza - Euskal Osasun Zerbitzuak eta BIOEF - Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioak eratu zuten, irabazi-asmorik gabeko elkarte pribatu gisa. 2011ko uztailaren 7an, Kronikgune Institutua Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistro Orokorrean inskribatuta geratu zen AS/B/16142/2011 zenbakiarekin. Egoitza soziala Bilbao Exhibition Centre - BECeko Dorrean dago, Azkueko kaleko 1ean —48902 Barakaldo (Bizkaia)—, eta Euskal Autonomia Erkidegoan egiten ditu bere jarduerak.

Eusko Jurlaritzaren 2019ko azaroaren 26ko 184/2019 Dekretuaren bidez, Kronikgune - Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutua elkarteari onura publikoa aitortzen zaio.

2020ko urtarrilaren 31n, ZTBES - Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarean sartutako agente zientifiko teknologiko gisa berriro akreditatu zuten, Ikerketa Sanitarioko Zentroen kategorian, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen osaera arautzen eta eguneratzen duen ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuaren 22.2 artikuluan zehaztutakoarekin bat etorritik.

Bere estatutuen arabera, Kronikgune Institutuaren helburu nagusia da osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan eta antolaketan ikerketzea eta ikerketa sustatzea, Eusko Jurlaritzako Osasun Sailaren ildo estrategiko eta politikoekin bat etorritik.



2. IZANDAKO MUGARRIAK - 2021EKO LABURPENA

2. IZANDAKO MUGARRIAK - 2021EKO LABURPENA

Kronikgune Institutua I+G+b jardueren eragile egikaritzaila da, ikerketa sanitarioko gainerako institutuekin batera (Bioaraba, Biogurutza Bizkaia eta Biodonostia), BIOEFekin koordinatuta eta Osasun Sailaren esparru estrategikoaren barruan. Kronikgune Institutuak oinarritzko tresna izan nahi du Euskadiko Osasun Sistemari lehiakortasun, kalitate eta iraunkortasun handiagoa emateko, eta Euskadiko aberastasuna eta garapen sozioekonomikoa sortzen laguntzeko, ezagutza eta metodologia egokiak sortuta.



1. irudia: I+G+b lanak egiten dituzten osasun-erakundeak

Erakunde horien arteko lankidetzak eta koordinazioa Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren 2021-2024 Esparru Estrategikoan¹ garatzen dira (2020ko urriaren 1ean argitaratu zen). 1. irudian ikus daitekeenez, Kronikgune Institutua Euskal Osasun Sistemako erakundeetako bat da, eta osasun-zerbitzuen eta ezagutzaren kudeaketaren inguruko ikerketara bideratzen du I+G+Bko bere jarduerak, are osasun-laguntzaren prestaziotik hurbil jardunez.

2021ean, Kronikgune Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutua elkarteak 10 urte bete ditu. 10 urte horiek Euskadiren bikaintasun eta posizionamendurako ikerketan eman ditu, osasun-zerbitzuetako ikerketan erreferente den heinean. 10 urteak ospatzeko, abenduan, Euskadiko Osasun Zerbitzuen Ikerketaren arloan egiten den lanari balioa ematea helburu zuen ekitaldi zientifikoa egin zen. Jardunaldia Bilbao Exhibition Center - BECen egin zen, eta bertan izan ziren Osakidetza zuzendari nagusia, Europako Batzordeko Osasun eta Elikagaien Osasuneko

¹

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/marco_estrategico_2021_2024/es_def/adjuntos/Marco-Estrategico-Departamento-Salud-2021-2024.pdf

Zuzendaritza Nagusiko Osasun Sistema eta Produktuen zuzendaria eta Eusko Jaurlaritzako Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria. Kronikguneko ikertzaileek eta Osakidetza osasun-profesionalek Kronikgune Institutuaren ikerketa-arlo handiekin lotutako ikerketa-proiektu batzuk partekatu eta azaldu zituzten.

Urteetan zehar, Kronikgune Institutuak Osakidetza produktuak, tresnak, prozesuak, zerbitzuak edo antolaketa-ereduak garatzen eta hobetzen lagundu du. Horren adibide da paziente pluripatologikoaren ibilbide asistentzial integratua, Osakidetza ESI batzuetan azterketa pilotu gisa ezarri dena eta, urte batzuk geroago, Osakidetza 13 erakunde sanitario integratuetara transferitu eta horietan ezarri dena. Kronikgune Institutuak sistemari egindako ekarpenaren beste adibide bat da paziente eta/edo zaintzailea ahalduzko Kronik ON programa (programa korporatiboa eta Osakidetzan zabaldua, paziente pluripatologikoaren ibilbidearen parte gisa). Programa hori, halaber, Kronikgune Institutuak koordinatutako europar proiektu batean garatu zen, Carewell hain zuzen ere.

COVID-19ak mundu osoan eragindako pandemiak markatu du 2021a ere. Kronikgune Institutuak Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari babesa eman dio sortutako egoerari eta erronkei aurre egiteko sortutako taldeare parte izanez. Era berean, sistemari lagundu dio COVID-19ak sortutako arazoari aurre egiten eta eraldatzen. Hala, Kronikgune Institutuko zuzendaria LABiko Aholku Batzordeko Komisio Teknikoko kide izan da 2021eko urrira arte, eta abenduaren 3tik aurrera, LABi berria eratu zenean, LABiko Batzorde Zientifiko Teknikoko Idazkaritza Teknikoa eman zitzaion.

Euskal Osasun Sistema Publikoaren (EOSP) nazioartekotzearen eta Europako posizionamenduaren esparruan, Kronikgune Institutuak, 2021ean, Europako Agentzia berriak —*European Health and Digital Executive Agency (HaDEA)*²— kudeatutako Europako hiru proiektu koordinatzen jarraitu du ADLIFE, JADECARE eta UPRIGHT proiektuak, hurrenez hurren. Europa mailan hiru proiektuak koordinatzea mugarri bat da Kronikgune Institutuentzat, 16 milioi euroko aurrekontu globala kudeatzeagatik eta Europako 60 erakunde baino gehiagoren jarduerak koordinatzeagatik. Era berean, nabarmendu behar dugu Kronikgune Institutuak Europako beste sei proiektutan parte hartu duela, eta proiektu horietan bederatzi lan-pakete zuzentzen dituela.

ADLIFE proiektu berritzailea da, eta helburu du gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten adineko pertsonen osasuna eta bizi-kalitatea hobetzea Europako bederatzi herrialdeetan. Kronikgune Institutuak Europako 11 erakundetako 100 pertsonak baino gehiagok osatutako partzuergoa koordinatzen du. ADLIFEk zazpi herrialde eta osasun-sistematik hedatuko du gidaritza: Euskadi (Osakidetza), Erresuma Batua (NHS Lanarkshire), Danimarka (Southern Denmark), Polonia

² https://hadea.ec.europa.eu/index_es

(FALKHOSP Lower Silesia), Alemania (Werra-Meißner Kreis), RJH-Suedia (Region Jämtland Härjedalen) eta Israel (Maccabi Healthcare Services).

Bestalde, UPRIGHT proiektua 2021eko abenduaren 31n amaitu zen, eta lau urtez lan egin da nerabeen erresilientzia eta ongizate mentala indartzeko eta zailtasunei aurre egiteko hainbat abilezian trebatzeko. 2021ean, hirugarren urtez jarraian nerabeei eta haien hurbileneko inguruneari (familia, irakasleak eta ikastetxea) zuzendutako eskolako esku-hartze unibertsala ezartzeaz gainera, Europako bost herrialdetako 39 ikastetxeetan esku hartu den hiru urteetan bildutako datuak analizatu dira. Proiektuan 4.176 nerabe (2.125 Euskadin, esku-hartzea eta kontrola), 550 irakasle (117 Euskadin) eta 2.744 familia (497 Euskadin) analizatu dira.

Azkenik, JADECARE Baterako Ekintzak Europako 16 herrialdetako 45 erakundek osatutako partzuergo baten koordinazioa dakar Kronikgune Institutuentzat. Era berean, Kronikgune Institutua da Estatu mailan Baterako Ekintza honen onuradun eta sinatzaile bakarra, Estatuko Osasun Ministerioaren izendapenaren ondoren. Hauek dira Kronikgune Institutuan afiliatutako erakundeak: Kataluniako AQuAS eta IDIBAPS, Andaluziako Fundación Pública Andaluza Progreso y Salud (FPS) eta Consejería de Salud y Familias de la Junta de Andalucía (CSFJA), Gaztela eta Leongo Gerencia Regional de Salud (SACYL), Kantabriako Servicio Cántabro de Salud (SCS) eta Instituto de Investigación Marqués de Valdecilla, eta Murtziako Servicio Murciano de Salud (SMS) eta Fundación para la Formación e Investigación Sanitarias de la Región de Murcia (FFIS). Baterako ekintza honen helburua da osasun-agintariek osasun-sistemaren eraldaketaren alderdi garrantzitsu guztiak arrakastaz jorratzeko duten gaitasuna indartzea, batez ere soluzio digitalen bidez emandako arreta baterako trantsizioa, integratua eta pertsonarengan zentratua.

Oro har, Kronikgune Institutuak Europa mailan duen presentzia sendotu egin da 2021ean, Europako 35 herrialdetako 330 entitate eta erakunde baino gehiagorekin harremanetan jarraitzen baitu. Era berean, Kronikgune Institutuak gauzatutako ikerketa-jardueretan Osakidetzako profesionalen lankidetzak eta parte-hartzea nabarmendu nahi ditugu. Osakidetzarekin sinatutako hitzarmenari esker, 2012tik osasun arloko 500 profesional baino gehiagok lagundu dute Kronikgune Institutuan egindako ikerketa-proiektuetan. 2021ean, Osakidetzako 263 profesional baino gehiagok lagundu dute nazioarteko, Estatuko eta tokiko ikerketa-proiektuetan zehaztutako jarduerak garatzen; hau da, parte-hartzea % 85 handitu da 2020arekin alderatuta.

2021ean, Kronikgune Institutuak Gaixotasun Kronikoen arloko Osasun Zerbitzuen Ikerketa Sarea koordinatzen jarraitu du, Carlos III.a Osasun Institutuarena (REDISSEC). Nabarmendu nahi dugu Estatu mailan Institutua dela osasun-arloko ikerketa-sare bat koordinatzen duen Euskal Osasun Sistema Publikoko erakunde bakarra. Sare horrek, besteak beste, autonomia-erkidegoetako ospitaleetako edo lehen mailako arretako 250 ikertzaile, teknologiak ebaluatzeko agentziak

eta osasun-sailak biltzen ditu 18 ikertalderen inguruan. Aurten lortutako emaitzen artean, nabarmendu behar dugu sareak 162 proiektutan parte hartu duela, COVID-19arekin lotutako 20 proiektu baino gehiago koordinatu dituela eta 241 artikulua zientifiko argitaratu dituela.


2021ean, Kronikgune Institutuan dauden lau ikertaldeei beste hiru ikertalde gehitu zaizkie. Kronikgune Institutuko ikertaldeak honako hauek dira:

1. Gaixotasun kronikoen osasun-zerbitzuetako ikertaldea.
2. Asistentzia-jardunari buruzko datuak berrerabiltzea.
3. Gaixotasun kronikoen ebaluazio ekonomikoa.
4. Osasun-zerbitzuetako ikertaldea.
5. Balioan oinarritutako medikuntza.
6. Osasun digitala.
7. Inplementazioa.

Produktzio zientifikoari dagokionez, 2021ean Kronikgune Institutuko langileek 41 argitalpen sortu dituzte, besteak beste artikulua, berrikuspenak eta laburpenak. Gainera, 2021ean zehar, Kronikgune Institutuak dibulgazio-jarduera zabala izan du, eta ahaleginak egin ditu bere ikerketa-jarduera, ezagutza eta emaitzak nazioartean, Estatuan eta Euskadin partekatzeko. Kronikgune Institutuko ikertzaileek nazioarteko, Estatuko eta tokiko 26 kongresutan parte hartu dute.

Azkenik, nabarmentzekoa da Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundeak (Organisation for Economic Co-operation and Development, OECD ingelesezko sigletan) Kronikgune Institutua gonbidatu duela "PaRIS Breast Cancer PROMs Working Group" lantaldean parte hartzeko, bazkide metodologiko gisa, "Health of Glance" txostenaren 2021eko edizioaren argitalpenerako (OECDk bi urtez behin argitaratzen du txosten hori). Dokumentu horrek "Balioan Oinarritutako Medikuntza" kontzeptua sustatu nahi du. Gero eta osasun-sistema eta ospitale gehiago ari dira txertatzen kontzeptu hori ohiko jardun klinikoan. Kronikgune Institutuaren erantzukizuna izan da Europako 10 ospitale edo osasun-sistemak emandako datuak araztea. Datu horiek bularreko minbizia duten pazienteei buruzkoak dira. Bazkide metodologiko gisa, datuak arazteaz gain, Kronikgune arduratu da pazienteen datuak analizatzetik, paziente horien bularreko minbiziaren tratamenduaren emaitzekiko gogobetetasun-emaitzak erakusteko. Kronikgunek egindako lana OECDren "Health at a Glance 2021" txostenean argitaratu da.

2021eko Memoria Zientifikoaren bidez, Kronikgune Institutuak 2021ean egindako ikerketa-jarduera guztiak eta lortutako emaitzak ezagutzera gonbidatzen zaitu.



3. ANTOLAMENDUA

3. ANTOLAMENDUA

2.1. Misioa, ikuspegia eta balioak

Kronikgune Institutuaren helburuak Osasuneko sailburuak sinatutako 2021eko martxoaren 8ko Aginduan agertzen dira. Agindu horren bidez, Osasun Sailaren 2021eko ekitaldirako dirulaguntzen plan estrategikoa onartzen da.

Dirulaguntzen plan estrategikoan honako hau esaten da: "Osasuna hobetzeko helburuaren barruan sartzen da, halaber, osasun-zerbitzuetan ikertzea eta arlo horretako esku-hartzeen eraginkortasuna ebaluatzea, eta kontuan hartzen ditu gizarte- eta osasun-intereseko gaixotasun garrantzitsuak, baita multimorbiditateak eta prozesu kronikoek eragindako gaixotasun-karga ere".

Zehazki, 3.3.2.1.1 puntuan Kronikgune Institutuaren helburu nagusia zehazten da. Hona hemen:

"Kronikgune Osasun Zerbitzuen Ikerketa Zentroari emandako laguntzaren helburua zentroak bere helburuak betetzeko egiten dituen jarduerak erraztea da —osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan eta antolaketan ikerketzea eta ikerketa sustatzea—.

Helburu hori lortzeko, 3.3.2.1.2 puntuan lortu nahi diren ondorioak zehazten dira:

- ✓ Baliabide honen bidez, osasun-zerbitzuetako ikerketari ekiteko plan estrategikoa garatu nahi da, honako arlo hauetan: osasun-politiken ebaluazioa; prozesuaren eta emaitzen ebaluazioa; erabakiak hartzeko laguntza; eta antolamendu-ereduen garapena eta ebaluazioa. Hori guztia, era berean zahartze aktibo eta osasungarriarekin lotuta dago.
- ✓ Erakundearen sorrerako helburuak garatzeko proiektuak prestatu, kudeatu eta koordinatzeko jardueretarako laguntza ere jasotzen da.
- ✓ Osasun Sailaren estrategia definitzen duten plangintza-tresnak betetzeko, osasun-arloko ikerketa- eta berrikuntza-politikak barne hartzen dira.

Kronikgune Institutuak oinarritzko tresna izan nahi du Euskadiko Osasun Sistemari lehiakortasun, kalitate eta iraunkortasun handiagoa emateko, eta Euskadin aberastasuna eta garapen sozioekonomikoa sortzen laguntzeko.

Osasun Saileko Kronikgune Institutuak jasotzen duen dirulaguntza izendunak zio bat du: osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan eta antolaketan ikertzeko eta ikerketa sustatzeko zentroak dituen helburuak betetzeko jardunean laguntzea.

Horretarako, Kronikgune Institutuak bere jarduera garatzen du osasun-sistemak eta sistema soziosanitarioak zerbitzuak antolatzean eta ematean eraginkortasuna, ekitatea, efizientzia eta

segurtasuna hobetzeko, ezagutza eta metodologia egokiak sortuta. Era berean, osasun-sistema hobetu eta berritzeko elementu katalizatzaile gisa dihardu, jasangarritasuna eta itzulera ekonomikoa bultzatuta, osasun-zerbitzuen esparruan ezagutza berria sortzeko bikaintasun-mailak lortzerantz, proiektu nazionalen eta nazioartekoaren lidergoarekin, eta inpaktuzko argitalpenekin.

MISIOA:

Bikaintasuneko ikerketa egitea osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen antolaketan eta kudeaketan, ezagutza eta balio sozial eta ekonomikoa sortzea eta aplikatzera bideratuta.

IKUSPEGIA:

Nazioarteko erreferentziazko ikerketa aplikatuko eta translazionaleko institutu gisa posizionatzea, osasun-politika eta -zerbitzu berriak, prozesuak eta antolamendu-ereduak garatu, ezarri eta ebalua daitezen sustatzeko, aldaketaren kudeaketa erraztuta eta osasun-zerbitzuetako ikerlana gidatuta.

BALIOAK:

Jarraian, 2. irudian, Kronikgune Institutuak bere jardueraren oinarri dituen balioak agertzen dira:

Goi-mailako zientzia osasun-zerbitzuen ikerketarekin lotutako diziplinetan, alderdi metodologikoetan eta teknikoetan.

Osasun-sistemak hobetzeko soluzioak bilatzeko eta sortzeko **konpromisoa, bokazioa eta grina**.

Ekitatea, osasunaren arloko desberdintasunak murrizten eta osasun-zerbitzuetarako sarbidea hobetzen lagunduta.


Efizientzia, prestazioetan eta emaitzetan goi-maila lortzeko gaitasuna, erabilitako baliabideetan oinarrituta.

Jasangarritasuna eta malgutasuna, behar eta eskari berrietarako egokitze.

2. irudia: Kronikgune Institutuaren balioak.

2.1. Gobernu-organoak - Organigrama

Kronikgune Institutuaren gobernu-organoetan eta 3. irudian erakusten den antolaketa-egituran ikusten da Institutua bi multzo handitan egituratuta dagoela: I+G Koordinazioa eta Administrazioa: kudeaketa eta antolamendua.



3. irudia: Kronikgune Institutuaren Gobernu-organoak - Organigrama

3.2.1 Batzar Nagusia

Batzar Nagusia Kronikgune Institutuaren borondatea adierazteko organo subiranoa da. Dagozkion eginkizunak exekutatzen ditu, Kronikgune Institutuaren ordenamendu juridikoan eta estatutu sozialetan xedatutakoaren arabera.

Hauek osatzen dute:

- Lehendakaria: Gotzone Sagardui Goikoetxea, Eusko Jaurlaritzako Osasuneko sailburua.
- Lehendakariordea: María Rosa Pérez Esquerdo, Osakidetzako zuzendari nagusia.
- Idazkari-diruzaina: María Aguirre Rueda, Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria (2021eko apirilaren 16ra arte), eta Marian Ibarrondo Unamunzaga, Osasun Saileko Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria (2021eko apirilaren 20tik aurrera).

Hauek dira Kronikgune Institutuaren Batzar Nagusiaren eskumenak:

- Urteko kontuak, Batzorde Betearazlearen kudeaketa eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- Lehendakaria, lehendakariordea eta idazkari-diruzaina eta, halakorik balego, kide anitzeko gobernu-organoko gainerako kideak hautatzea eta kargutik kentzea, baita haiek gainbegiratzea eta kontrolatzea ere.
- Estatutu sozialak aldatzea eta, hala badagokio, Barne Erregimeneko Araudia onartzea eta aldatzea.
- Elkartea desagitea eta eraldatzea.
- Beste elkarre edo erakunde batzuekin federatzea eta konfederatzea, baita elkarre elkarre horiekin bat egitea, integratzea edo horiek xurgatzea ere.
- Ondasun higiezinak eskuratu edo besterendu daitezen onartzea.
- Lehendakaritzako, Lehendakariordetzako eta Idazkaritza-diruzaintzako karguen ordainsaria erabakitzea, hala badagokio.
- Kuota arruntak edo apartekoak finkatzea. Ahalmen hori gobernu-organismoaren esku utzi ahal izango da berriazko erabakiaren bidez.
- Elkartekideak behin betiko banantzeko erabakia hartzea.
- Batzorde Betearazleko, Ikerketa Batzordeko eta Kanpoko Batzorde Zientifikoko kideak izendatzea eta kargutik kentzea.
- Estatutu sozialek Batzar Nagusiari esleitzen dizkioten beste eskumen batzuk.

3.2.2 Batzorde Betearazlea

Batzorde Betearazleak Kronikgune Institutuaren gobernu-organo gisa dihardu, Batzar Nagusiak eskuordetuta.

Batzorde Betearazlearen osieran, berezko kideak eta izendapen askeko kideak bereiziko dira.

Berezko kideak dira beren kargua dela-eta hala izatea dagokienak:

- Eusko Jaurlaritzan ikerketa eta berrikuntza sanitarioaren arloan eskumena duen zuzendaritzaren ordezkariak.
- Osakidetza Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkariak, edo hark eskuordetzen duen pertsona.
- BIOEF - Berrikuntza eta Ikerketa Sanitarioko Euskal Fundazioaren ordezkariak.

Izendapen askeko kideak dira Batzar Nagusiak izendatzen dituenak.

Bileretara hitzarekin baina boto-eskubiderik gabe joan ahal izango dira Kronikgune Institutuko zuzendari kudeatzailea eta zuzendari zientifikoa edo Batzorde Betearazleko lehendakariak egokitzat jotzen dituen pertsonak.

Hauek osatzen dute:

- Eusko Jaurlaritzako Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko zuzendaria: María Aguirre Rueda (2021eko apirilaren 16ra arte), eta Marian Ibarrondo Unamunzaga (2021eko apirilaren 20tik aurrera).
- Osakidetza Asistentzia Sanitarioko zuzendaria: Victor Bustamante Madariaga.
- BIOEFeko I+G+b Kudeaketa Unitateko zuzendaria: Susana Belaustegui Ituarte.

Batzorde Betearazlearen eskumenak:

- Batzar Nagusiak hartutako erabakiak gauzatzea, Batzar Nagusiak berari esleitzen dizkionak.
- Institutuaren zuzendaritza- eta kudeaketa-lanen aldizkako jarraipena egitea.
- Batzar Nagusiaren bilkuretako gai-zerrendaren proposamena egitea eta, hala badagokio, aurkeztu beharreko dokumentazioa berrikustea.
- Batzar Nagusiari proposatzea organo horri dagozkion erabakiak har ditzala.
- Institutuak sinatutako hitzarmen eta akordioen jarraipena egitea.
- Institutuaren zuzendaritza- eta kudeaketa-lanak erraztea, elkartutako edo itundutako erakundeekin dituen harremanei dagokienez bereziki.

3.2.3 Ikerketa Batzordea

Ikerketa Batzordeko kideak askatasunez izendatzen eta kargugabetzen ditu Batzar Nagusiak. Elkarrearen jardun-esparruan egindako ibilbide profesional eta zientifikoagatik ospetsuak diren pertsonak osatzen dute.

Ikerketa Batzordea honako hauek osatzen dute:

- Kronikgune Institutuko Zuzendaritza Zientifikoa.
- I+Gko koordinazio-arduraduna.
- Institutuak dituen ikerketa-arloetako arduradunak edo arduradun horrek eskuordetzen duen ordezkari bat.
- Ikerketa-jarduerako bazkidearen ordezkari bat, baldin eta erakunde hori ordezkaturik ez badago aurreko irizpideren bat betetzen duelako.
- Institutua osatzen duten Euskal Osasun Sistemako erakundeetako ordezkari bat.

Hauek osatzen dute:

- Ikertaldearen arduradunak: José M^a Quintana, Eduardo Millán, Iñigo Gorostiza, Javier Mar, Borja García, Dolores Verdoy eta Ane Fullaondo.
- Kronikgune Institutuko I+Gko koordinazio-arduraduna: Ane Fullaondo.
- Osakidetzako Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritzaren ordezkaria: Igor Zabala.

Ikerketa Batzordearen eskumenak:

- Finantzaketaren xede diren proiektuei buruzko txostenak egitea, eta horiek gara daitezen onartzea edo ukatzea.
- Kronikgune Institutuan lehenetsitako ikerketa-arloen kalitatea, koherentzia eta jarraitutasuna zaintzea.
- Kronikgune Institutuan ikertalde berriak sartzeko egokitasuna ebaluatzea.
- Kronikgune Institutuan dauden taldeetan ikertzaile berriak sartzeko prozedura proposatzea.
- Irekitako ikerketa-arloetako esperientziak eta emaitzak partekatzea eta elementu eta aurrerapen nagusiak bateratzea.
- Kronikgune Institutuan egiten den ikerketa hura inspiratu behar duten printzipio etiko orokorrekin bat datorrela zaintzea.

2.2. 2020-2024 Plan Estrategikoa

Kronikgune 2020-2024 Institutuaren Plan Estrategikoak Institutuaren 2020tik 2024ra arteko helburuak aurkezten ditu, epe tarte horretan, Osasun Sailak ezarritako helburua lortu nahi da. Planean biltzen da kanpoko eta barruko osasun-zerbitzuetako ikerketaren ingurune erakundeetako 50 eragile baino gehiagoren analisiko eta gogoeta estrategikoko lana, baita egindako *benchmarking* ere, Europako, Estatuko eta eskualde-mailako osasun-zerbitzuen ikerketaren ingurukoa. Lan hori osatzeko, erakundearen barne-ebaluazioa egin da, 2012an sortu zenetik lortutako emaitzak eta egindako jarduera berrikusita. Dokumentuan jaso da, halaber, prozesuan parte hartu duten eragileek AMIA analisia betetzeko eta ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak identifikatzeko egindako gogoeta estrategikoa.

Kronikgune Institutuak lau jarduera-ildo estrategiko zehaztu ditu, eta horiek guztira 21 helburu biltzen dituzte, 2024ra arte jorratu, landu eta bete nahi direnak. 4. irudian, zehaztutako lau ikerketa-ildoak agertzen dira:

1. Posizionamendua eta lidergoa osasun-zerbitzuen ikerketan

2. Bikaintasun zientifikoa

3. Inpaktua sisteman

4. Barruko antolamendu-garapena

4. irudia: Kronikgune Institutuaren ildo estrategikoak

Jarraian, ildo bakoitzean ezarritako helburu nagusiak eta definitutako arlo estrategikoak zehazten dira.

- 1. Posizionamendua eta lidergoa osasun-zerbitzuen ikerketan:** Kronikgune Institutuak erreferentziazko zentroa eta liderra izan nahi du osasun zerbitzuen ikerketan, maila autonomikoan, Estatuan eta Europan. Jarrera horrek beste erakunde batzuekiko lankidetzarako prestasuna eskatzen du Kronikgune Institutuarengandik, baita bere ikerketa-jardueraren bikaintasun zientifikoa, kalitatean eta ikusgarritasunean haztea ere. Gainera, hiru mailetan abiarazitako ikerketa-ekimen eta -deialdietan lehiakortasunez parte hartzea eskatzen du. Ildo honetan bost arlo estrategiko daude: Europako Proiektua,

osasun-ekintza estrategikoko proiektuak, ZTBP 2030 proiektuak, eta lankidetzako sareak eta aliantzak.

2. **Bikaintasun zientifikoa.** ZTBP 2030aren ildotik³, bikaintasun zientifikoak helburu du Institutuko ikertzaile-jardueraren ondoriozko oinarri zientifikoa eta ezagutzaren sorkuntza hobetzea, eta Institutuko langileen ahalmen eta gaitasun teknikoak eta zientifikoak areagotzea. Ildo horretatik, bost lan-arlo daude: Produkzio zientifikoa, Ikertzaileak sartzeko eta garatzea, Ikertaldeak, Laguntza-plataformak eta Prestakuntzako eta garapen profesionaleko programak.
3. **Eragina osasun-sisteman.** Kronikgune Institutuaren jarduerak helburu du ezagutza sortzea eta osasun-sistemaren eta sistema soziosanitarioaren hobekuntza eta onura soziala sustatzea. Horrek berekin dakar osasun-sistemeekin eta, oro har, gizartearekin etengabe elkarerraginean egotea, balioa sortzeko. Ildo honen bidez, osasun-sistema etengabe egokitu eta eraldatu nahi da, pertsonak sistemaren erdigunean mantenduz; zahartzarotik, kronikotasunetik eta mendekotasunetik ez ezik, COVID-19aren pandemiak azken bi urteetan sortutako erronka berrietatik ere eratorritako erronkak barne hartuta. Ildo horretatik, lau lan-arlo markatu dira: Erabakiak hartzeko ezagutza eta ebidentzia ematea, Euskadiko osasun-sistemaren lehentasunak babestea, Zerbitzuen eta esku-hartzeen ebaluazioa, eta Komunikazio- eta hedapen-programak.
4. **Barruko antolamendu-garapena.** Kronikgune Institutuaren organo erabakitzaileak Batzarra eta Batzorde Betearazlea dira. 2018ko abenduko Ezohiko Batzar Nagusian Barne Erregelamendua onartu zen. Datozen lau urteetan adostutako antolaketa-elementuak finkatzea eta/edo garatzea planteatzen da. Azken ildo horretan, zazpi lan-arlo daude definituta: Batzarra, Batzorde Betearazlea, Zuzendaritza Gerentzia eta Zuzendaritza Zientifikoa, Ikerketa Batzordea, Kanpoko Kontseilu Zientifikoa, ikerketa-arloak, eta Administrazioa eta kudeaketa ekonomiko-finantzarioa.


3

https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/despliegue_pcti_euskadi/es_def/adjuntos/Bases_PCTI_Euskadi_2030_documento.pdf

2.3. Egitura zientifikoa

Kronikgune Institutuaren helburu nagusia da osasun-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen kudeaketan eta antolaketan ikerketzea eta ikerketa sustatzea, Osasun Sailaren politikekin eta plan estrategikoarekin bat etorritik⁴. Ildo horretatik aurrera egin nahi du osasun-politikak eta zerbitzuak ebaluatzen, esku hartzeko ereduak garatzen, aldaketa barreiatzen eta analizatzen eta osasun-zerbitzuetan ezartzen, osasun-sistemaren efikazia, ekitate, efizientzia eta segurtasun handiagoa ahalbidetzeko.

Ikerketa-arloek Kronikgune Institutuaren ikerketa- eta berrikuntza-jardura definitzen dute (jardura hori zeharka, zentro anitzetan eta diziplina anitzetan gauzatzen da), Institutuaren funtzionamendu egokia eta produktibitate zientifikoa bermatzeko. Kronikgune Institutuaren ikerketa-arloak lau dira (5. irudian agertzen dira):



5. irudia: Kronikguneren ikerketa-arloak

⁴ <https://www.euskadi.eus/marco-estrategico-2021-2024/web01-a2salpol/es/>

lkerketa-arlo bakoitzaren barruan, jarraian zehazten diren ildoak, arloak eta gaiak definitzen dira:

1. OSASUN-POLITIKAK ETA POLITIKA SOZIOSANITARIOAK DISEINATZEA ETA EBALUATZEA:

- Balioan oinarritutako arreta.
- Osasun publikoko programak eta esku-hartzeak.
- Ekonomia- eta aurrekontu-eragina.
- Irisgarritasuna, ekitatea, eraginkortasuna eta efizientzia.

2. ANTOLAMENDU-EREDUAK GARATZEA ETA EBALUATZEA:

- Digitalizazioa eta garapen teknologikoak.
- Ereduak eta ibilbide klinikoak garatzea.
- Antolamendu-aldaketak ezartzea.

3. PROZESUA ETA EMAITZAK ANALIZATZEA ETA EBALUATZEA:

- Zerbitzuen erabilera, aldakortasuna eta egokitzapena.
- Kalitatea, segurtasuna eta atxikimendua.
- Emaizta klinikoak eta pazienteek hautemandakoak.
- Efikazia, eraginkortasuna, kostuen analisia.

4. ERABAKIAK HARTZEN LAGUNTZEA:

- Datuen modelizazioa eta analitika.
- Laguntza-tresnak.
- Herritarrak eta pazienteak ahalduntzea.


Kronikgune Institutuaren ekintza-fokuak makro mailatik mikro mailaraino hartzen du: osasun-politikak eta politika soziosanitarioak, zerbitzu-erakundeak eta azken erabiltzaileak.

3.4.1 Ikertaldeak

Ikertaldeak Institutuaren ikerketa egituratzeko oinarrizko unitateak dira, eta bertako edo Elkarteari atxikitako langileek osatzen dituzte. Dagokien instituzioa edo erakundea edozein dela ere, kidetasun zientifikoa dute eta taldeko ikertzaile arduradunak zehaztutako zuzendaritza, gainbegiratze edo parametroen arabera egiten dute lan. Taldea bere ikerketa-gaiaren arabera definitu behar da, eta ez nahitaez asistentziarekin edo sailarekin duen loturaren arabera. Taldeek Kronikguneko gutxienez ikerketa-arlo baten barruan jardun behar dute.

2021ean, Kronikgune Institutuak zazpi ikertalde izan ditu, beren jardura lau ikerketa-arloen esparruan garatu dutenak eta garatuko dutenak.

6. irudian, modu grafikoan aurkezten dira ikertaldeak:



6. irudia: Kronikgune Institutuko ikertaldeak eta -arloak

1. taulan Kronikgune Institutuari atxikitako ikertaldeak (IK), horietako ikertzaile nagusien (IN) eta horien jatorrizko erakundearen osaera agertzen da:

Ikertaldea	Ikertzaile nagusia	Erakundea
Gaixotasun kronikoen osasun-zerbitzuetako ikertaldea	José M ^a Quintana López	Barrualde - Galdakao ESI
Asistentzia-jardunari buruzko datuak berrerabiltzea	Eduardo Millán Ortuondo	Asistentzia Sanitarioko Zuzendaritza - Osakidetza Zuzendaritza Nagusia
Gaixotasun kronikoen ebaluazio ekonomikoa	Javier Mar Medina	Debagoieneko ESI
Osasun-zerbitzuen ikertaldea	Iñigo Gorostiza Hormaetxe	Bilbo Basurtu ESI
Balioan oinarritutako medikuntza	Borja García Lorenzo	Kronikgune Institutua
Osasun digitala	Dolores Verdoy Berastegui	Kronikgune Institutua
Inplementazioa	Ane Fullaondo Zabala	Kronikgune Institutua

1. taula: Kronikgune Institutuko ikertaldeak.


6. irudian ikusten denez, ikertaldeak Kronikgune Institutuko lau ikerketa-arloetan zentratzen dira zientifikoki, eta, 1. taulan agertzen denez, talde bakoitzak ikertzaile nagusi bat du, talde bakoitzaren proiektuen, ikerketa-jardueren eta emaitzei buruzko analisisen jarraipena egiteaz arduratzen dena. Horrela, ikertalde bakoitzak hainbat arlo edo gairen inguruan egiten du bere jarduera. 2. taulan, ikertalde bakoitzean lantzen diren arloak eta gaiak azaltzen dira, baita talde bakoitzeko profesionalen profilak ere:

Ikertaldea	Arloa	Profilak
Gaixotasun kronikoen osasun-zerbitzuetako ikertaldea	• Prebalentzia handiko patologia kronikoetako esku-hartzeen azterketa konparatiboak • Ikerketa ebaluatiboa hobetzeko metodoak garatzea eta ebaluatzea, aurreikuspen-arauen garapena eta arriskuen estratifikazioa barne • Osasun-egoera, osasun-zerbitzuen erabilera eta prebalentzia handiko gaixotasun kronikoak dituzten pazienteen kostuak ebaluatzea eta horien jarraipena egitea • Pazientearen ikuspegia ezaugarritzea eta ebaluazio-prozesuan txertatzea, horretarako tresna egokiak diseinatzea eta baliozkotzea barne • Kronikotasunarekin lotuta, osasun-zerbitzuak betetzeari buruzko azterlanak: aldakortasuna, erabilera egokia, zaintzaren jarraitutasuna	• Osasun-zerbitzuetako ikertzaileak • Matematikako eta estatistikako profesionalak • Klinikokoak eta kudeatzaile interesdunak
Asistentzia-jardunari buruzko datuak berrerrabiltzea	• Kohorteak sortzea, asistentzia-jardunean zehar ohitura bezala bildutako datuetatik abiatuta • Erabakiak hartzeko laguntza: populazio-arriskuaren estratifikazioa, programa/esku-hartze korporatiboaren eraginkortasuna ebaluatzea eta asistentzia-jarduna/zainketak egokitzea	• Epidemiologoak • Data scientists • Informazio-sistemetako adituak • Klinikokoak (medikuntza, erizaintza, farmazia) • Kudeatzaileak
Gaixotasun kronikoen ebaluazio ekonomikoa	• Kostu-erabilgarritasun azterketak, gaixotasunaren historia naturala irudikatzeko eredu bidez • Kostu-erabilgarritasun azterketak, pazienteen datu indibidualen bidez	• Epidemiologoak • Klinikokoak • Estatistikoak

Ikertaldea	Arloa	Profilak
	• Antolamendu-programak ebaluatzea • Analisi epidemiologikoa • Osasun-arloko desberdintasunen analisia	
Osasun-zerbitzuetako ikertaldea	• Osasun-zerbitzuak • Jardun klinikorako arauak eta eredu prediktiboak garatzea, baliozkotzea eta ezartzea • Pazienteek jasotako emaitzak ebaluatzea • Administrazio-datuak analizatzea • Eredu estatistiko berriak	• Klinikoak • Epidemiologoak • Matematikoak • Ebaluazio kualitatibo eta kuantitatiboko adituak • Proiektuen kudeatzaileak
Balioan oinarritutako arretako ikertaldea	• Asistentzia-prozesuak analizatzea • Informazio-sistemak integratzea (PROMak, informazio klinikoa) • Osasun-emaitzak ebaluatzea (pazienteen eta aldagai kliniko bidez jakinaraziak) • Kostuak analizatzea • Datuak analizatzeko eta bistaratzeko tresnak garatzea • Erakundeen arteko emaitzak konparatzea eta jardunbide egokiak identifikatzea • Balioan oinarritutako arreta ohiko jardunean txertatzea • Herritarrak eta pazienteak ahalduntzea • Erabakiak elkarrekin hartzea	• Osasun-zerbitzuen ikertzaileak • Osasunaren ekonomialariak • Klinikoak • Kudeatzaileak (ekonomikoak, kalitatea, berrikuntza)
Osasun digitaleko ikertaldea	• IKTak (plataforma informatikoak, konektibitatea, softwarea eta sentsoreak) osasun-zerbitzuetan inplementatzea eta eskalatzea, efizientzia, jasangarritasuna, elkarrengarritasuna eta segurtasuna barne hartuta • Aplikazio-eskakizunak eta zerbitzuak definitzea	• Osasun-zerbitzuen ikertzaileak • Informatika eta telekomunikazioetako profesionalak • Informazio-sistemetako, datu-babeseko eta kalitateko profesionalak

Ikertaldea	Arloa	Profilak
	- Osasun digitalean oinarritutako antolamendu- eta arreta-ereduak - Datuen kudeaketa eta osasun-emaizten trazabilitatea - Osasun-zerbitzuen ebaluazioan datuen modelizazioa eta analitika aplikatzea eta baliozkotzea, "big data" eta inteligentzia artifiziaia barne - Zerbitzuen kudeaketan eta osasun-politikan erabakiak hartzeko laguntza konputarizatua	- Datuen zientzialariak - Klinikoak - Kudeatzaileak
Inplementazio ikertaldea	- Asistentzia-ereduak eta -ibilbideak garatzea, zerbitzuen integrazioa barne - Ohiko jardunean antolamendu-aldaketak hedatzea - Osasun-arloko programak eta esku-hartzeak txertatzea - Irigarritasuna, ekitatea, segurtasuna, eraginkortasuna eta efizientzia ebaluatzea - Aldaketa kudeatzea - Etengabeko hobekuntzako zikloen metodologiak eta inplementazioaren ebaluazioa	- Osasun-zerbitzuen ikertzaileak - Estatistikoak - Osasuna sustatzeko profesionalak - Asistentziaren arloko kalitateko eta integratioko profesionalak - Klinikoak - Kudeatzaileak

2. taula: Kronikgune Institutuko ikertaldeen lantzen dituzten arloak.



4. BALIABIDEAK


4. BALIABIDEAK

4.1 Giza baliabideak

2021ean, 57 lagunek egin dituzte Kronikgune Instituturako ikerketa-jarduerak, eta horien artean daude langile propioak eta ikertaldeetako kide diren ikertzaile atxikiak. 2019an baino % 17 gehiago dira. Era berean, Osakidetzako 250 profesional baino gehiagok parte hartu dute Kronikgune Institutuak egindako proiektuetan, hau da, 2020an baino % 21 gehiago. Atal honetan, 2021ean Kronikgune Institutuarekin lan egin eta jarduerak egin dituzten pertsona guztien banaketa erakusten dugu, bai langile propioena, atxikiena, bai Osakidetzako lankideena.


Kronikgune Institutuko langileak:

Kronikgune Institutuak 24 langile kontratatu ditu batez beste 2021ean; hau da, % 42ko gehikuntza egon da 2020an batez beste kontratatutako langileekiko. 7. irudian ikus daitekeenez, Kronikgune Institutuko langileen % 78 emakumeak ziren.




7. irudia: Kronikgune Institutuko langileen kategorizazioa generoaren arabera.

8. irudian, Kronikgune Institutuko langileen prestakuntza-mailaren zerrenda aurkezten da, MECES mailen arabera⁵. MECES esparru komun bat da, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratutakoa, titulazioak eta maila akademikoa homologatzeko eskakizunak eta prozedura ezartzen dituena. Ikus dezakegunez, Kronikgune Institutuko plantilla propioaren % 48k master-maila du, % 33 doktorea da, % 15ek graduduna eta % 4 goi-mailako teknikaria.



8. irudia. Kronikgune Institutuko langileen banaketa beren prestakuntza-mailaren arabera.

Langile propioen batez besteko adinari dagokionez, esan dezakegu Kronikgune Institutua erakunde gaztea dela, 9. irudian antzeman dezakegunez. Bertan ikusten da 2021ean plantillaren % 52 40 urtetik beherakoa izan dela. Jarraian, plantilla propioa adinaren arabera argitzeko adierazleak aurkezten ditugu:




9. irudia. Kronikgune Institutuko plantillaren sailkapena adinaren arabera.

⁵ https://www.boe.es/diario_boe/txt.php?id=BOE-A-2014-12098#:~:text=A%2D2014%2D12098-,Real%20Decreto%20967%2F2014%2C%20de%2021%20de%20noviembre%2C%20por,el%20procedimiento%20para%20determinar%20la


Kronikgune Institutura atxikitako ikertzaileak:

Ikertaldeetako 30 pertsonak Kronikgune Instituturako egin dute beren ikerketa-jarduera 2021ean. 10. irudiak ikertzaileen banaketa erakusten du generoaren arabera (gizonak eta emakumeak):




10. irudia. Kronikgune Institutura atxikitako ikertzaileen kategorizazioa generoaren arabera.

Lehen aipatutako MECES mailen arabera, 11. irudian erakusten denez, Institutura atxikitako ikertzaileen % 80 master-mailan daude eta % 16k doktore-titulua dute.



11. irudia. Kronikgune Institutura atxikitako ikertzaileen banaketa haien prestakuntza-mailaren arabera.

Adinari dagokionez, atxikitako ikertaldearen % 37 50-61 urteko adin-tartean dago, eta % 23 41-50 urtekoan. 12. irudian azaltzen da nola banatzen den atxikitako ikertaldea adin-tartearen arabera:



12. irudia. Kronikgune Institutuari atxikitako ikertzaileen sailkapena adinaren arabera.

Ikerketa-proiektuetan laguntzen duten Osakidetzako langileak:

Kronikgune Institutuak hitzarmen bat sinatuta du Osakidetzarekin 2011ko abenduaren 1etik. Hitzarmen horretan, osasun-zerbitzuen eta kronikotasunaren arloko ikerketa-jarduera zuzentzeko, kudeatzeko, gainbegiratzeko eta kontrolatzeko ardura ematen zaio, Kronikgune Institutura atxikitako ikertzaileek eta Osakidetzako taldeek parte har dezaten. Akordio horretan, era berean, Osakidetzak Kronikgune Institutuaren esku uzten du osasun-ikerketako jarduerak finantzatzeko funtsen koordinazioa eta kudeaketa, funts propioena zein hirugarrenena.

Hitzarmen honen esparruan, Kronikgune Institutuak Europako, Estatuko eta tokiko hainbat finantza-erakunderen ikerketa-proiektuen jarduerak egiten ditu Osakidetzarekin koordinatuta, honako alderdi hauetan:


- Koordinazio teknikoa eta zientifikoa: parte-hartzea koordinatzea, ikerketa-jarduerak egitea eta Osakidetzaren baliabideak kudeatzea, bai Osakidetzako Zuzendaritza Nagusiarenak, bai erakunde sanitario integratuenak (ESI), osasun mentaleko sareenak eta beste erakunde batzuenak.
- Koordinazio ekonomikoa: Osakidetzako Aurrekontuak Kudeatzeko Zuzendariordetzarekin koordinatuta lan egiten da ikerketa-proiektuek jasotako dirulaguntzen jarraipenarekin zerikusia duen guztian. Kudeaketa-lanak hartzen du egindako gastuen justifikazio ekonomikoa Europako Batzordearen aurkeztetik hasi eta gastu horiei buruzko ikuskapen-txostena prestatzeraino.

2012an sortu zenetik, Euskal Osasun Sareko 500 profesional baino gehiagok parte hartu dute Kronikgune Institutuaren proiektuen esparruan egindako jardueretan. 2021ean, Osakidetzako 263 profesionalak, ESI 13 erakunde sanitario integratuetako maila eta zerbitzu asistentzial desberdinetakoek, eta Osakidetzako eta Osasun Saileko beste erakunde batzuek lagundu dute eta beren ekarpena egin dute hainbat erakunde eta programaren bidez finantzatutako ikerketa-proiektuak garatzeko.




13. irudia. Euskadiko ESI erakunde sanitario integratuen mapa.

14. irudian, modu grafikoan aurkezten dira, lurraldeka banatuta, proiektuetan parte hartu duten Euskal Osasun Sistemako eta Osakidetza Nagusiko profesionalak:



14. irudia. Kronikgune Institutuaren proiektuetan parte hartu duten Euskal Osasun Sistemako eta Zuzendaritza Nagusiko langileak, lurraldeka banatuta.

Osakidetza laguntzaileen % 66,54 emakumeak dira, eta % 33,46 gizonak, 15. irudian ikus daitekeenez.



15. irudia. Osakidetza laguntzaileen kategorizazioa generoaren arabera.

2021ean, Kronikgune Institutuarekin parte hartu dute Osakidetza Euskal Osasun Zerbitzua osatzen duten hamahiru ESletatik hamaikak, baita Santa Marina ospitaleak, Gortziko ospitaleak, Osakidetza Nagusiak, Onkologikoak eta Osasun Sailak ere. 3. taulan agertzen dira Kronikgune Institutuarekin batera Osakidetza erakunde bakoitzak parte hartu duen lankidetzaproiektuak eta -sareak:

Erakundea	Ikerketa-proiektua
Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla	Eusko Jaurlaritzak: 2019111042; 2021111083 Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): PI18/00674; PI18/00938 Europako proiektuak: ADLIFE; JADECARE; GATEKEEPER Beste proiektu batzuk: VOICE; EIIMPROVE
Barrualde-Galdakao ESla	Eusko Jaurlaritzak: 2019111042; 2019111043; 2020111078; 2019111019; 2021111083 Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): COV20/00459; PI18/00674; PI18/00698; PI18/01438; PI18/01589 REDISSEC lankidetzak: RD16/0001/0001; RD16/0001/0018 Europako proiektuak: Gatekeeper; ADLIFE; SCIROCCO Exchange; UPRIGHT Beste proiektu batzuk: VOICE; EIIMPROVE
Arabako ESla	Eusko Jaurlaritzak: 2019111042; 2020111078; COV20/00459 Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): PI18/00674 REDISSEC lankidetzak: RD16/0001/0009 Europako proiektuak: JADECARE; UPRIGHT; ADLIFE; GATEKEEPER
Tolosaldeko ESla	Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): PI17/02129 Europako proiektuak: ADLIFE; JADECARE; GATEKEEPER
Debagoieneko ESla	Eusko Jaurlaritzak: 2020111078 REDISSEC lankidetzak: RD16/0001/0009 Europako proiektuak: Scirocco EXCHANGE; UPRIGHT; ADLIFE; GATEKEEPER Beste proiektu batzuk: VOICE
Debabarreneko ESla	Europako proiektuak: ADLIFE; GATEKEEPER

Erakundea		Ikerketa-proiektua
Bidasoako ESla		Europako proiektuak: ADLIFE; GATEKEEPER
Goierri-Urola ESla	Garaiko	Europako proiektuak: Gatekeeper
Uribeko ESla		Eusko Jaurlaritza: 2021111083 Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): PI18/01438 Europako proiektuak: ADLIFE; GATEKEEPER
Bilbo-Basurtuko ESla		Eusko Jaurlaritza: 2019111043; 2020111078; 2019111019/KG Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): PI18/00938 REDISSEC lankidetzaren sarea: RD16/0001/0009; RD16/0001/0018 Europako proiektuak: JADECARE, GATEKEEPER; ADLIFE
Donostialdeko ESla		Eusko Jaurlaritza: 2019111042; 2019111043; 2021111083 Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): PI18/00674; PI18/00698; PI18/00938; PI18/01589 REDISSEC lankidetzaren sarea: RD16/0001/0018 Euroepos proiektuak: ADLIFE; GATEKEEPER
Osakidetzako Zuzendaritza Nagusia		Eusko Jaurlaritza: 2020111078; COGNITIA Karlos III.a Osasun Institutua (ISCIII): PI18/00938; REDISSEC lankidetzaren sarea: RD16/0001/0009 Europako proiektuak: JADECARE; GATEKEEPER; ADLIFE; SCIROCCO EXCHANGE; Beste proiektu batzuk: VOICE; EIIMPROVE
Santa Marina Ospitalea		Europako proiektuak: Scirocco EXCHANGE; ADLIFE Beste proiektu batzuk: VOICE
Osasun Saila		Eusko Jaurlaritza: 2020111078; 2019111019; 2019111042; 2019111043; 2019222003; 2020111078; 2021111083 Europako proiektuak: JADECARE; SCIROCCO Exchange Beste proiektu batzuk: VOICE

3. taula: Euskal Osasun Sistemako erakundeek Kronikgune Institutuan parte hartzen duten ikerketa-proiektuen zerrenda.

4.2. Baliabide ekonomikoak

4.2.1 Finantzaketa-iturriak:

Kronikgune Institutuaren ikerketaren garapena ezartzen da, beste ikerketa-institutu batzuetan bezala, Europako, Estatuko eta eskualdeko politika publikoek eta sektore pribatuak ezarritako testuinguru ekonomiko eta finantzarioan. Azken urteotan, Kronikgune Institutuak lehiakortasuneko eta kanpoko funtsen bidez finantzatu du bere jarduera gero eta handiagoa. 2021ean, Europako Batzordearen funtsak % 42 izan dira, eta Estatuko Administrazio Orokorrarenak, berriz, jarduera propioaren dirusarrera guztien % 16, Institutuaren dirulaguntzen bidez. Era berean, osasunaren esparruan erakunde pribatuekin egindako akordioen bidez lortutako kanpoko funts ez-lehiakorrek dirusarrera guztien % 3,5 bildu dute.

Europa-mailan, funts lehiakorrak bi bidetatik lortzen dira:

1. Horizon 2020 programaren deialdiak (H2020). Kronikgune Institutua UPRIGHT eta ADLIFE proiektuak koordinatzen ari da Europa-mailan. Halaber, GATEKEEPER proiektuan onuradun gisa parte hartzen jarraitzen du, Osakidetzak bezala. Proiektu horretan Biogurutzeta Bizkaia Institutuak ere parte hartzen du, Osakidetzari lotutako hirugarren parte gisa.
2. 3. Osasun Programaren deialdiak, Osasun eta Elikagaien Segurtasuneko Zuzendaritza Nagusiak (DG SANTE) HaDEA Agentziaren bidez koordinatuak. Osasun Ministerioak Kronikgune Institutua izendatu zuen Espainian baterako ekintza honetarako erakunde onuradun eta sinatzaile bakar. Halaber, Kronikgune Institutua JADECARE Baterako Ekintzaren koordinatzailea da Europa-mailan. Azkenik, SCIROCCO EXCHANGE eta YOUNG50 proiektuetan onuradun gisa parte hartzen jarraitzen du.

2021eko apirilaren 1etik aurrera, *European Health and Digital Executive Agency* (HaDEA) Europako Agentzia arduratzen da H2020, Horizon Europe eta EU4Health programek finantzatutako proiektuak kudeatzeaz.

Estatu-mailan, ikerketa finantzatzeko tresna nagusia Karlos III.a Osasun Institutuaren deialdiak dira, eta I+G+Bko Estatuko Planaren Osasuneko Ekintza Estrategikoaren (OEE) bitartez bideratzen dira. OEEa lehiaketa bidezko urteko deialdi bakar baten bitartez egikaritzen da, eta Estatuko programen urteko jarduketa-programak garatzen ditu. Kronikgune Institutuak Ikerketa Kooperatiboko Sare Tematikoa (RETIC) koordinatzen du, Gaixotasun Kronikoen arloko Osasun Zerbitzuetako Ikerketarako (REDISSEC). Euskaditik koordinatutako sare tematiko bakarra da, eta 2022an amaituko da.

Era berean, Kronikgune Institutuak 2018ko deialdiko sei proiektu kudeatzen ditu, eta horiei gehitu zaie 2020ko aurrekontuko COVID19 – FUNTSaren deialdian lortutakoa, deialdi honetan: “SARS-CoV2 birusa ikertzeko proiektu eta programetarako zuzenean emateko dirulaguntzak”.

Euskal erakundeei dagokienez, ikerketa eta berrikuntza nagusiki sustatzen dira 2020ko Osasuneko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategiaren bidez. Estrategia hori Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza 2020 Planaren barruan dago (ZTBP 2020). Espezializazio adimendunaren estrategiak (*Research & Innovation Smart Specialisation Strategy – RIS3*), Euskal Autonomia Erkidegoko zientzia, teknologia eta berrikuntzaren sistemarako egungo esparrua denak, helburu du euskal gizartearen ongizatea, hazkunde ekonomiko jasangarria eta enplegua hobetzea, espezializazio adimendunean eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Sistemaren eraginkortasunaren hobekuntzan oinarritutako ikerketa- eta berrikuntza-politika baten bidez.

Kronikgune Institutuak lortutako finantzaketak gora egin du urtetik urtera, bai Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren HAZITEK - Enpresen I+G bultzatzeko Programan, bai Osasun Sailaren osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzen deialdietan.

Esparru pribatuaren barruan, 2020tik hainbat akordio sinatu dira. Finantzaketa hori Kronikgune Institutuaren sarrera guztien % 3,5 da. 2020aren amaiera aldean, hitzarmen bat sinatu zen Vifor Pharma España SL enpresarekin, EIMPROVE proiektua garatzeko 2021. urte osoan zehar. Era berean, 2021eko abenduaren 9an, lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zen ROCHE FARMA SA eta ROCHE DIAGNOSTICS SLU enpresekin, *Value based healthcare for patients with lung and breast Cancer* proiektua garatzeko. Bi proiektuak balioan oinarritutako medikuntzaren ildoaren barruan daude.

Azken laburpen gisa, 2021ean, Kronikgune Institutuak lortutako sarreren % 64 kanpoko iturrietatik datoz, eta ikerketa-proiektuetan edo lankidetzeta-sareetan egiten dituen jarduerak finantzatzeko erabiltzen dira.

4. taulan kanpoko iturri horien jatorria erakusten da, finantzaketa publikoa eta finantzaketa pribatua bereizita.

Kanpoko finantzaketa-iturriak	2021. urtea	%
Finantzaketa publikoa	1.071.886,00 €	94,50%
Finantzaketa pribatua	62.462,00 €	5,50%
	1.134.348,00 €	100,00%

4. taula. Kronikgune Institutuaren kanpoko finantzaketa-iturri publiko eta pribatuak 2021ean.

5. taulan Kronikgune Institutuaren kanpoko finantzaketa erakusten da, lehiaketa bidezko iturrien eta lehiaketaz kanpokoaren artean banakatuta.

Kanpoko finantzaketa-iturriak	2021. urtea	%
Lehiaketa bidezko finantzaketa	1.042.728,00 €	91,92%
Lehiaketaz kanpoko finantzaketa	1.620,00 €	8,08%
	1.134.348,00 €	100,00%

5. taula. Kronikgune Institututik 2021ean jasotako kanpoko finantzaketa-iturriak, lehiaketa bidezkoak eta lehiaketaz kanpokoak.

4.2.2 Egoera-balantzea eta galdu-irabazien kontua:

4.2.2.1 Egoera-balantzea

6. taulan, Kronikgune Institutuaren 2021eko abenduaren 31ko eta 2020ko abenduaren 31ko egoera-balantzea azaltzen da —zifrak eurotan (€) daude—.

	<u>AKTIBOA</u>	<u>31/12/2021</u>	<u>31/12/2020</u>
AKTIBO EZ KRRONTEA			
Ibilgetu materiala			
Altzariak		10.431	
Informazioa prozesatzeko ekipok		4.815	2.981
Aktibo ez-arrunta guztira		15.246	2.981
AKTIBO KORRONTEA			
Norberaren jardueraren erabiltzaileak eta bestelako zordunak		48.664	49.101
Zordun komertzialak eta kobratu beharreko beste kontu batzuk			
Administrazio publikoekiko beste kreditu batzuk		175.195	150.000
		175.195	150.000
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak			
Diruzaintza		2.374.809	2.812.057
Aktibo Arrunta guztira		2.598.668	3.011.158
AKTIBOA GUZTIRA		2.613.914	3.014.139

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA

31/12/2021

31/12/2020

ONDARE GARBIA

Funts propioak

Gizarte-funtsak	2.244.000	2.244.000
Aurreko ekitaldietako soberakina	(1.539.489)	(1.566.892)
Ekitaldiko soberakina	21.216	27.403
Ondare garbia, guztira	725.727	704.511

PASIBO KORRONTEA

Epe motzeko zordunak

Bestelako pasibo finantzarioak	2.887	267.623
--------------------------------	--------------	----------------

Hartzekodun komertzialak eta ordaindu beharreko beste kontu batzuk

Hornitzaileak	62.806	7.567
Administrazio publikoekiko bestelako zorrak	71.384	59.164
Proiektuetarako jasotako aurrerakinak	1.751.110	1.975.274
	1.885.300	2.042.005
Pasibo Arrunta Guztira	1.888.187	2.309.628
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA, GUZTIRA	2.613.914	3.014.139

5. taula. Kronikgune Institutuaren 2021eko egoera-balantzea.

4.2.2.2 Emaizten kontu

7. taulan, 2021eko eta 2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldietako emaitzen kontuak erakusten dira —zifrak eurotan (€) daude—.

	<u>31/12/2021</u>	<u>31/12/2020</u>
Ekitaldiko soberakina		
Norberaren jardueraren diru-sarrerak		
Ekitaldiko soberakinari egotzitako diru-laguntzak	1.790.249	1.326.329
Langile-gastuak		
Soldatak eta antzekoak	(857.259)	(714.216)
Karga sozialak	(229.035)	(204.575)
	<u>(1.086.294)</u>	<u>(918.791)</u>
Jardueraren beste gastu batzuk		
Kanpo-zerbitzuak	(681.541)	(379.850)
Ibilgetuaren amortizazio	(1.198)	(285)
JARDUERAREN SOBERAKINA	<u>21.216</u>	<u>27.403</u>
SOBERAKINA ZERGEN AURRETIK	<u>21.216</u>	<u>27.403</u>
Mozkinen gaineko zergak	-	-
Ekitaldiko soberakinean kontabilizatutako ondare garbiaren aldakuntza	<u>21.216</u>	<u>27.403</u>
EMAITZA GUZTIRA, ONDAREAREN ALDAKETA		
GARBIA EKITALDIAN	<u>21.216</u>	<u>27.403</u>

7. taula. Kronikgune Institutuaren 2021eko emaitzen kontua

4.3 Baliabide zientifiko-teknikoak: I+G+b-ari laguntzeko zerbitzuak eta plataformak

Laguntza-plataformak ikerketa-proiektuen alderdi espezifikoak garatzea eta babestea ahalbidetzen duten egiturak dira, haiek ahalik eta ondoen diseinatu, gauzatu eta hedatzeko. Kronikgune Institutuak I+G+b-ari laguntzeko hiru plataforma eskaintzen dizkie bere ikertzaileei. Egitura horiek ahalbidetu egiten dute sarean lan egitea eta Institutuaren ikerketa eta berrikuntzatik lortutako produktuei irteera ematea. 16. irudian, eskuragarri dauden hiru laguntza-plataformak eta horien eginkizunak agertzen dira:

Proiektuen plataforma

Honako arlo hauetan egiten du lan:

- Joeren azterketa eta Europako deialdien eta beste batzuen berrikuspena
- Osakidetza- eta Osasun Sailaren beharrianak, ekimenak eta proiektuak identifikatzea
- Proposamenak diseinatzea, aurrekontu-plangintza, harreman-sareen kudeaketa eta Europako aliantzak barne
- Proiektuen garapena, gauzatzea eta txostena koordinatzea eta laguntzea
- Diseinu- eta kudeaketa-metodologiak garatzea (design thinking, ko-sorkuntza, agile eta beste mota batzuk)

Datua kudeatzeko plataforma

Honako arlo hauetan egiten du lan:


- Datu-base handien garapena
- Osasun-arloko informazio-sistemen ustiapena
- Erregistro, datu-base kliniko eta administratibo, kohorte edo bizitza errealeko datu eskuragarrien datuak eta informazioa izateko, ikertzaileek analisiak egiteko.

Plataforma metodologikoa

Nazioko eta nazioarteko proiektuei dagokienez, honako arlo hauetara bideratuta dago:

- Azterlan, dokumentazio eta analisi estatistiko eta kualitatiboak diseinatzea eta garatzea
- Emaizak interpretatzea, aurkeztea eta zabaltzea
- Horretarako, Big Data, Real World Data eta Inteligentzia artifiziala ikerketa eta berrikuntzarako erabiltzea ahalbidetzen duten datuen analitikako metodologiak eta gaitasun teknologikoak ditu.

16. irudia. Kronikgune Institutuaren I+G+b-ari laguntzeko plataformak.



5. I+D+i JARDUERAK


5. I+G+b JARDUERA

5.1 I+G+b proiektuak

5.1.1. Europako ikerketa-proiektuak

Kronikgunek parte hartzen duen Europako proiektuak batez ere HaDEA⁶ Europako Agentzia Betearazleak finantzatzen ditu, osasunaren eta digitalaren arloetan. Agentzia horrek gauzatu egiten du Europako Batzordearen asmo hau: COVID-19aren ondoren Europa bere muinetik berreraikitzen laguntzea, ekologikoagoa, digitalagoa, erresilienteagoa eta egungo eta etorkizuneko erronketara hobeto egokitua izan dadin. Agentziak bildu egiten ditu Europako Batzordeak koordinatutako lehengo Horizon 2020 programak eta CHAFAEA Kontsumitzailearen, Osasunaren, Nekazaritzaren eta Elikaduraren Agentzia Betearazlearen 3. Osasun Programa.


Azken urtean, Kronikgune Institutuak Europako hainbat erakunderekiko harreman- eta lankidetzak sareari eutsi dio. Sortu zenetik, 35 herrialdeko 330 erakunderekin baino gehiagorekin lan egin du institutuak, eta haiekin ia 400 lankidetzak lortu ditu Europako proiektuetan, ikaskuntza-komunitateetan, lankidetzak sareetan, ekimenetan eta beste jarduerak batzuetan. 17. irudian, laburbilduta ikus dezakegu Kronikgune Institutuarekin lankidetzan aritu diren erakundeen jatorria.



17. irudia. 2012tik Kronikgune Institutuarekin lan egin duten Europako erakundeak.


⁶ https://ec.europa.eu/info/departments/european-health-and-digital-executive-agency_es#:~:text=La%20Agencia%20Ejecutiva%20Europea%20en,los%20retos%20actuales%20y%20futuros.

18. irudian ikus daitekeenez, Kronikgune Institutuak H2020 programak finantzaturako hiru proiektutan eta 3. Osasun Programak finantzaturako hiru proiektutan parte hartu du 2021ean.



18. irudia. Europako programak eta Europako programek finantzaturako proiektuak.

Kronikgune Institutuak parte hartu duen Europako sei proiektuetan honako rol hauek hartu ditu: proiektuaren Europa osoko koordinatzailea eta onuraduna. 19. irudian, Kronikgune Institutuak Europako proiektuetan rol bakoitza zenbat aldiz hartu duen zehazten da:



19. irudia. Kronikgune Institutuak Europako proiektuetan hartutako rolak.

Kronikgune Institutuak 2021ean koordinatutako Europako proiektuen guztizko aurrekontua 8. taulan laburbiltzen da. Halaber, Europako Batzordeak jasotako dirulaguntza eta Kronikgune Institutuak aurten koordinatutako proiektu bakoitzean Euskadiri esleitutako aurrekontua aurkezten dira.

Programa	Proyecto	F.inicio	F.Fin	Presupuesto	Subvención UE	Socios	Presupuesto País Vasco	OSIS Participantes
H2020	UPRIGHT	01/01/2018	31/12/2021	3.874.215€	3.874.215€	7	926.710€	OSAKIDETZA (TP)/ OSI Araba
H2020	ADLIFE	01/01/2020	31/12/2023	7.450.949€	6.379.670€	11	1.059.750€	OSAKIDETZA (TP)/ 7OSIs*
CHAFEA	JADECARE	01/10/2020	30/09/2023	5.000.000€	4.000.000€	17 CA+ 25 Implementadores	467.938€	OSAKIDETZA
Totales				16.325.164€	14.253.885€		2.454.398€	

8. taula. Kronikgune Institutuak koordinatutako Europako proiektuen aurrekontua eta finantzaketa.

2021ean, Kronikgune Institutuak Europako proiektuetan jorratu eta landu dituen gai nagusiak 20. irudian aurkezten dira. Hona hemen:



20. irudia. Kronikgune Institutuak Europako proiektuetan jorratutako gai nagusiak.

Europako proiektuak, oro har, bost fasetan egituratzen dira:

- Hasi aurreko fasea: Europako Batzordearekin dirulaguntzen kontratua sinatzea.
- Hasierako fasea: Partzuergoaren akordioa sinatzea eta proiektua abian jartzea.
- Tarteko fasea: Proiektua hedatzea eta egikaritzea.
- Azken fasea: Proiektuaren emaitzak eta ondorioak aztertzea.
- Amaituta: Emaitzak eta produktuak argitaratzea.

9. taulan Kronikgune Institutuak 2021ean parte hartu duen Europako sei proiektuak azaltzen dira. Proiektuei buruzko informazio hau laburbilduta azaltzen da: proiektuaren akronimoa, izen osoa, erakunde finantzatzailea, proiektuaren fasea eta Kronikgune Institutuaren rola.

Akronimoa	Izen osoa	Erakunde finantzatzailea	Fasea	Rola
ADLIFE	<i>Integrated personalized care for patients with advanced chronic diseases to improve health and quality of life</i>	Horizon 2020	Tarteko fasea	Koordinatzailea
GATEKEEPER	<i>Smart living homes – whole interventions demonstrator for people at health and social risks</i>	Horizon 2020	Tarteko fasea	Onuraduna
JADECARE	<i>Joint Action in implementation of Digitally Enabled integrated person-centred CARE</i>	3. Osasun Programa	Tarteko fasea	Koordinatzailea
SCIROCCO Exchange	<i>Personalised Knowledge Transfer and Access to Tailored Evidence-Based Assets on Integrated Care: SCIROCCO Exchange</i>	3. Osasun Programa	Tarteko fasea	Onuraduna
UPRIGHT	<i>Universal Preventive Resilience Intervention Globally Implemented in Schools to improve and promote mental Health for Teenagers</i>	Horizon 2020	Azken fasea	Koordinatzailea
Young50	<i>YOUNG50 #Stay Healthy – Cardiovascular Risk Prevention</i>	3. Osasun Programa	Tarteko fasea	Onuraduna

9. taula. Kronikgune Institutuak 2021ean parte hartu duen Europako proiektuen zerrenda.

Jarraian, hurrengo orrialdeetan, Kronikgune Institutuak parte hartu duen Europako proiektuak eta 2021ean egindako jarduera aipagarriak deskribatzen dira:

- **Akronimoa:** ADLIFE
- **Izen osoa:** *Integrated personalized care for patients with advanced chronic diseases to improve health and quality of life*
- **Deialdia:** H2020-SC1-DTH-2019
- **Proiektu-zk.:** 875209
- **Erakunde finantzatzailea:** Horizon 2020
- **Aurrekontu globala:** 7.450.949 €
- **Iraupena:** 2020ko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era
- **Proiektuaren koordinazioa:** Kronikgune Institutua
- **Web-orria:** <https://adlifeproject.com/>
- **Deskribapena:** ADLIFEk aurre egin nahi die osasun-sistemek dituzten erronkei: pazienteak ahalik eta bizitza independenteena izan dezan lortzea; zaintzaileei laguntza ematea eta sistema sanitario eta sozial jasangarriak sortzea.
- **Helburuak:** Helburuak: arreta pertsonalizatua eta koordinatua ematea gaixotasun kroniko aurreratuak dituzten pazienteei, arreta-plan pertsonalizatuen bidez. Helburua da pazienteen eta haien zaintzaileen bizi-kalitatea hobetzea, narriadura goiz detektatzea eta ebaluatzea, narriaduratik suspertzea edo hura atzeratzea eta haiek ahalduntzea.
- **Emaitzak:**
 - Konponbide berritzaile bat ezartzea, arreta-planen pertsonalizazioa errazteko eta pazienteen premiei eta lehentasunei azkar eta goiz erantzuteko gaitasuna hobetzeko.
 - Erabaki klinikoak hartzeko laguntza-zerbitzuak eskaintzea, helburuak eta tratamendua proposatzeaz gain, pazienteen behar aldakorak aurreikusteko eta zerbitzu espezifikoak gomendatzeko, prebenitu daitezkeen gertaeren aurrean goiz jardun dadin.
 - Zerbitzu espezifikoak ematea, pazienteak bere osasunaren kudeaketan parte-hartze handiagoa izan dezan.
 - Frogatzea ADLIFE soluzioak pazienteen osasun-emaitzak eta osasun-arreta hobetzen dituela eta arreta koordinatuaren jarraitutasuna bultzatzen duela.
- **2021eko jarduera nabariak:**
 - Proiektuaren koordinatzailea; beraz, 1. lan-paketeko (WP1) proiektuaren koordinazioaren eta kudeaketaren buru da.
 - 9. lan-paketeko (WP9) liderra: Pilotuak ebaluatzeaz eta lortutako emaitzak aztertzeaz arduratzen da.
 - 7.1 atazaren arduraduna. "Pazienteak jakinarazitako emaitzak eta pazienteen osasuna eta bizi-kalitatea neurtzeko inkestak, osasunarekin eta ongizatearekin lotuta.
 - Proiektuaren bigarren eta hirugarren osoko bilerak egitea (online formatuan): 2021eko maiatzak 4-5 eta azaroak 16-17.



- ADLIFEn osasun-emaizen zehaztapen- eta trazabilitate-prozesua antolatzeko esparru kontzeptuala garatzea.
- Azken erabiltzaileekin (profesional sanitarioekin eta pazienteekin) batera sortzea, proiektuan ezarriko diren pazientearen ahalduntze-tresnak garatzeko eta identifikatzeko.
- Adimen Artifizialean oinarritutako arriskua aurreikusteko algoritmoak garatzeko ADLIFE interbentzioan aurreikus daitezkeen egoerak definitzea (depresioa/antsietatea; desnutrizioa; ospitaleratze saihegarria; berriz ospitaleratzea; hipotentsioa eta mendekotasuna).
- Arretaren Plangintza Partekatua (APP) ADLIFEn garatutako plataforma digitaletan, gaixotasunaren azken faseei, bizitzaren amaierari, heltzeko.
- Plan pertsonalizatuak sortu eta kudeatzeko plataformaren Alfa prototipoak garatzea, osasun-profesionalentzat eta Pazientea Ahalduntzeko Plataformarentzat (PAP).
- Elkarrengarritasuneko suiteak garatzea, plataformak sistema lokalekin integratzeko (zazpi pilotu).

- **Akronimoa:** GATEKEEPER
- **Izen osoa:** *Smart living homes – whole interventions demonstrator for people at health and social risks*
- **Deialdia:** H2020-SC1-FA-DTS-2018-2020
- **Proiektu zk.:** 857223
- **Erakunde finantzatzailea:** Horizon 2020
- **Aurrekontu globala:** 22.596.059 €
- **Iraupena:** 2019ko urriaren 1etik 2023ko martxoaren 31ra
- **Proiektuaren koordinazioa:** MEDTRONIC IBERICA SA
- **Web-orria:** <https://gatekeeper-project.eu/>



- **Deskribapena:** Proiektuak ebidentzia eman nahi du asistentzia-kalitateari eta osasun-emitzei dagokienez, datuen erabilera masiboaren bidez, Adimen Artifizialeko (AA) teknologien, Big Dataren eta datuen analitikaren bitartez. Helburua da gaixotasunak eta desgaitasunak goiz detektatzea, sintomak ulertzea eta diagnostiko goiztiarra egitea, baita jarraipen etengabea eta pertsonalizatua erraztea ere.
- **Helburua:** Estandarretan oinarritutako esparru irekia ematea, elkarreragilea eta segurua, eragile guztientzat eskuragarri egongo dena, eta soluzio digitalak sortzea detekzio goiztiarra lortzeko eta esku-hartze pertsonalizatuak egiteko. Helburua teknologia berrien potentzial guztia aprobetxatzea da, gero eta zaharragoa den biztanleriari eskaintzen zaizkion zerbitzu soziosanitarioak hobetzeko. Asmoa da adinekoak trebatzea osasuntsu egon daitezen, denboran zehar dagokien ahalmen funtzional egokienari dagokionez.
- **Emailtzak:**
 - Europako plataforma bat garatzea, etxean bizimodu adimentsua, osasungarria eta independentea sustatzeko.
 - IKTen Europako industriaren lehiakortasuna areagotzea, elkarreragingarritasuna hobetuz, eta negozio- eta finantzaketa-eredu bideragarrietarako eta merkatu eskalagarrietarako jardunbide egokienak identifikatuz.
 - Loturak eta sinergiak sortzea Europako estatu kideen eta eskualdeen artean.
 - Osasun-sistemen eta arreta-sistemen ebidentzian oinarritutako efizientzia hobetzea, azpiko tresnak eta teknologiak erabiliz.
 - Inplikaturako erabiltzaile eta zaintzaileen bizi-kalitatea eta osasun-egoera hobetzea, azpiko teknologien bidez.
 - Erabiltzaileak onartutako eta baliozkotutako soluzio berritzaileak garatzea; irisgarritasuna, pribatutasuna, segurtasuna, kalteberatasuna, erantzukizuna eta konektatutako datu-espazioekiko konfiantza lantzen dituztenak.
- **2021eko jarduerak nabariak:**
 - Kronikgune Institutuaren ardura-eko bi erabilera-kasuak prestatzeko jarduerak garatzea:

- Euskal Autonomia Erkidegoko 1. erabilera-kasua: Detekzio goiztiarra eta bizimodu osasungarriaren gaineko esku-hartzeak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko 7. erabilera-kasua: Gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen kudeaketa, polifarmazia barne.
- Protokoloak Euskadiko Etika Batzordeari aurkeztea eta onartzea.
- Alde biko bilerak ESI erakunde sanitario integratu guztiekin, baita EAEko erakunde eta entitateekin ere, proiektuan parte hartzen dutela berresteko.
- 7. erabilera-kasuko teknologiak Osakidetzan integratzeko jarduerak gainbegiratzea: CheckTheMeds plataforma eta profesionalentzako "App Nire tratamendua" kontrol-panela integratzea.
- Hasierako bilera antolatzea eta bi erabilera-kasuetako parte-hartzaileak erakartzea (online antolatutako bilerak, bakoitzean 60 lagunetik gorako bertaratzeaz).
- Osakidetza osasun-profesionalak erakartzea proiektuan parte hartzeko (proiektuan inplikaturako 143 profesional).
- Esku hartzeko materialak garatzea eta bi prestakuntza-saio antolatzea 7. erabilera-kasuan parte hartzea onartu duten profesional sanitarioekin.
- 7. erabilera-kasurako hautagai diren pazienteak identifikatzea.
- MAHA aplikazioa egokitzea 1. erabilera-kasurako: MAHA aplikaziorako edukiak identifikatzea, berrikustea eta garatzea.
- Partzuergoak 2021ean egindako hileroko bileretan eta bi bileretan parte hartzea eta jardueren berri ematea.
- Proiektu-mailan Europako Batzordeari aurkeztutako txostenetan laguntzea.

- **Akronimoa:** JADECARE
- **Izen osoa:** *Joint Action in implementation of Digitally Enabled integrated person-centred CARE*
- **Deialdia:** 3rd Health Programme (2014-2020)
- **Proiektu zk.:** 951442
- **Erakunde finantzatzailea:** 3. Osasun Programa
- **Aurrekontu globala:** 3.999.226 €
- **Iraupena:** 2020ko urriaren 1etik 2023ko irailaren 30era
- **Proiektuaren koordinazioa:** Kronikgune Institutua
- **Web-orria:** <https://jadecare.eu/>
- **Deskribapena:** Europako Batzordeak garatu eta ezarritako jatorrizko lau jardunbide egoki Europar Batasuneko (EB) beste herrialde batzuetara transferitzeko hautatu ondoren sortu da baterako ekintza. Jardunbide horiek honako hauek biltzen dituzte: integrazioa, gaixotasun kronikoak, multimorbiditatea, pertsona ahulak eta premia konplexuak dituzten pazienteak, autozainketa, biztanleriaren osasunaren prebentzioa eta sustapena, gaixotasunen kudeaketa eta kasuen maneia.
- **Helburuak:** Osasun-agintarien ahalmena indartzea osasun-sistemaren eraldaketaren alderdi garrantzitsu guztiak arrakastaz jorratzeko, batez ere soluzio digitalen bidez emandako arreta baterako trantsizioa, integratua eta pertsonarengan zentratua. "Lehen Hornitzaileen" sistemetako lau jardunbide transferituko dira "hurrengo hartzaileetara". Lau jardunbide egoki hauek transferituko dira:
 - Zahartzeari eta kronikotasunari buruzko euskal osasun-estrategia: arreta integratua (Euskadi, Espainia).
 - IKTen laguntza duten paziente kronikoentzako arreta integratuko zerbitzuei buruzko berrikuntza irekiko Kataluniako zentroa (Katalunia, Espainia).
 - OptiMedis eredua: biztanlerian oinarritutako arreta integratua (Alemania).
 - Osasun-sektore integratu baterako bide-orri digitala (Danimarkako hegoaldeko eskualdea).
- **Emailtzak:**
 - Osasun-arretako sistema integratu berritzaileak, eraginkorrak, iraunkorrak eta pertsona ardatz dutenak sortzen laguntzea.
 - Berrikuntza bultzatzea, osasun-sistemen jasangarritasuna areagotzea eta haien errendimendua eta osasun-arretaren arloko emailtzak hobetzea.
 - Osasun-zerbitzuen eraldaketa digitala lortzea. Horretan, funtsezko zeregina izango dute azken erabiltzaile profesionalek, arretaren erabiltzaileek edo herritarrek, osasun-hornitzaileek, irtenbide digitalak ematen dituzten eragileek eta gobernuek.



JADECAREk parte hartzen duten eragileen arteko lankidetza hobetuko du, ezagutzak transferitzen eta ikasten lagunduko du, eta arreta integratuari buruzko ebidentziak sortuko ditu. Horrek onurak ekarriko ditu baterako ekintzaren denbora-esparrutik harago. JADECAREk bere ondorio nagusiak partekatuko ditu eta politiken jasangarritasuna bermatuko du tokiko, eskualdeko eta Estatuko esparruetan.

- **2021ko jarduera nabariak:**

- Baterako ekintzaren koordinatzailea Europan, 1. lan-paketearen (WP1) liderra den aldetik.
- 5. lan-paketearen (WP5) liderra, Euskal Autonomia Erkidegoko jardunbide egoki bat transferitzeko: "Zahartzearen eta kronikotasunaren arloko euskal osasun-estrategia: arreta integratua".
- Txostena entregatzea, Euskadiko Jardunbide Egokiari buruzko informazio osoarekin.
- Ikerketa-bisita antolatzea, online mintegiko 3 egun, Euskadiko Jardunbide Egokiaren "hurrengo hartzaileekin".
- Jardunbide egokiak transferitzeko eta ezartzeko estrategia garatzea, 3.2 atazaren (WP3 - Ebaluazioa) lider gisa.
- Txostena garatzeko arduraduna, pilotu guztientzako "inplementazio-metodologia" definituta.
- JADECARE proiektua kudeatzeko eredua garatzea, Europako PM2 metodologian oinarrituta.
- Partzuergoaren urteko lehen bilera egitea, proiektuaren lehen urtean garatutako jarduerak bateratzeko (2 eguneko ekitaldia: 129 parte-hartzaile eta 33 panelista).
- "Eragile interesdunen" ("*Stakeholders Forum*") urteko lehen bilera egitea, esparru sanitario, industrial eta akademikoko ordezkarien parte-hartzearekin.
- Baterako ekintzan parte hartzen duten 16 herrialdeetako ordezkari politikoen ("*Policy board*") lehen bilera egitea.
- 21 eskualde hartzaileentzako euskarria ezarpen-metodologian.

- **Akronimoa:** Scirocco Exchange
- **Izen osoa:** *Personalised Knowledge Transfer and Access to Tailored Evidence-Based Assets on Integrated Care: SCIROCCO Exchange*
- **Proiektuaren deialdia:** HP-PJ-2018
- **Proiektu-zk.:** 826676
- **Aurrekontu orokorra:** 3. Osasun Programa
- **Emandako finantzaketa:** 2.649.588 €
- **Iraupena:** 2019ko urtarrilaren 1etik 2022ko otsailaren 28ra
- **Proiektuaren koordinazioa:** NHS24 (Eskoia)
- **Web-orria:** <https://sciroccoexchange.com/>
- **Deskribapena:** Osasun- eta gizarte-laguntzako agintariei laguntza eman nahi zaie arreta integratua hartzen eta eskalatzen. Ebidentziarako eta tresnetarako (aktiboak) sarbidea hobetzen lan egingo da, baita eskualdeak ulertzen ere, arreta integratua ezartzeari dagokionez. Proiektuak ezagutzak modu pertsonalizatuan transferitzea eta arreta integratuan hobekuntzak planifikatzea sustatuko du. Horretarako, "Ezagutzak kudeatzeko nodo (EKN)" ("Knowledge Management Hub – KMH") bat sortuko da. Horrek arreta integratuan dauden aktiboak bilduko ditu. Tresnak aktiboak lotuko ditu azterketan parte hartzen duten eskualdeen behar espezifikoekin.
- **Helburuak:** Erraztea eskualdeen heldutasunaren ebaluazioa eta arreta integratua hartzeko eta mailaz igotzeko prestaketa, eta hobeto ulertzea nazioetako eta eskualdeetako osasun-agintariek arreta integratuaren arloan dituzten beharrak eta lehentasunak. Eskualdeen arreta integratuaren autoebaluaziorako "Scirocco tresnaren" eta EKNaren hedapena aztertuko da, aktiboetara modu pertsonalizatuan iristea errazteko eta Europako eskualdeen artean ezagutzen transferentzia sustatzeko.
- **Espero diren emaitzak:**
 - Tokiko lehentasunak eta beharrak hobeto ezagutzea, arreta integratua ezartzeko eta eskalatzeko.
 - Osasun-agintarien aktibo pertsonalizatuak bilatzeko gaitasuna hobetzea, arreta integratua hartu, ezarri eta eskalatzeko.
 - Arreta integratua diseinatu, ezarri eta eskalatzeari buruzko erabaki informatuak hartzea hobetzea eta sustatzea.
 - SCIROCCO Exchange EKNaren erabilera sustatzea zahartze aktibo eta osasungarriko soluzioak hartzeko, ezartzeko eta eskalatzeko prozesuan.



- **2021ko jarduera nabariak:**

- Jarduerak garatzea 6. lan-paketearen lider gisa: Dauden aktiboak identifikatzea ("Capacity-Building Assets").
- Literatura zientifikoaren berrikuspen berria (286 artikulua): arreta integratuko 35 artikulua zientifiko berri hautatzea.
- Bi mintegi antolatzea Euskadiren ezagutza proiektuko bazkideekin transferitzeko:
 - Osakidetzaren ekosistema digitala.
 - Koordinazio soziosanitarioa eta osasun mentalaren kudeaketa.
- Eskoziako Gobernuak zerbitzuak eraldatzeko antolatutako mintegira bertaratzea, herritarrekin batera sortzeko prozesuan parte hartuta.
- Herritarrak prozesuen eta ibilbideen diseinuan, birdiseinuan eta eskalatzean inplikatzen metodologia zehaztea, eta Osakidetzako paziente pluripatologikoen ibilbidea hobetzeko aplikatzea.
- NACIC 2021ean antolatutako lantegian parte hartzea.⁷

⁷ <https://integratedcarefoundation.org/conference-pages/nacic2021-conference-programme>



- **Akronimoa:** UPRIGHT
- **Izen osoa:** *Universal Preventive Resilience Intervention Globally Implemented in Schools to improve and promote mental Health for Teenagers*
- **Deialdia:** H2020-SC1-2016-2017
- **Proiektu-zk.:** 754919
- **Erakunde finantzatzailea:** Horizon 2020
- **Aurrekontu globala:** 3.874.215 €
- **Iraupena:** 2018ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
- **Proiektuaren koordinazioa:** Kronikgune - Osasun Zerbitzuen Ikerketa Institutua
- **Web-orria:** <http://uprightproject.eu/>
- **Proiektuaren deskribapena:** Nerabezaro goiztiarra (12 eta 14 urte) aldaketa fisiko, mental, emozional eta sozialen garaitzat hartzen da. Garai horretan izaten diren arrisku-faktore ugariak ondorio gisa ekar dezakete osasun mentaleko arazoak eta arrisku-jokabideak garatzea. Erresilientzia lantzea tresna balio handiko tresna bihur daiteke egoera txarrei aurre egiteko ahalmena hobetzeko. Horrek berekin dakar osasun mentala hobetzea eta nahasmendu mental batzuk prebenitzea. UPRIGHT programak gazteen erresilientzia-ahalmena areagotu nahi du, ikastetxeetan nerabeei, familiei, irakasleei eta hezkuntza-komunitate osoari zuzendutako erresilientzia-programa baten bidez. UPRIGHT bost herrialde pilotutan ezarri da (Islandia, Italia, Polonia, Danimarka eta Euskadi-Espainia).
- **Helburua:** Ongizate mentala sustatzea eta nahasmendu mentalak prebenitzea, gazteen erresilientzia-ahalmena areagotuta. 12-14 urteko gazteentzako esku-hartze holistikoko programa bat batera diseinatzea eta horren eraginkortasuna baliozkotzea, erresilientzia eta ongizate mentala areagotzeko. Ongizate mental positiboa sustatzen laguntzen duten erresilientzia-faktore espezifikoiei buruzko ebidentzia zientifikoa ematea.
- **Espero diren emaitzak:**
 - Ikastetxeetan ongizate mentalaren kultura sortzea.
 - Nerabeei, familiei eta hezkuntzako profesionalei zuzendutako esku-hartze eraginkorra eta unibertsala garatzea eta ezartzea Europako ikastetxeetan.
 - Nahasmendu mentalen edo komorbiditateen agerpena murriztea.
 - Gazteen ongizate mentala hobetzea, (i) eskola- eta unibertsitate-uzteak epe laburrean murrizteko, (ii) konfiantza pertsonala eta funtzio kognitiboa indartzeko eta (iii) hezkuntza-ahaleginak eta enplegarritasuna hobetzeko.
 - Familiaren, irakasleen, eskola-ingurunearen eta komunitatearen ongizate-mailak hobetzea.
 - Gazteak ahalduntzea, aurre egiteko abilezietan, abilezia sozioemozionaletan eta kontzientziazioan trebatuta.

- **2021ko jarduera nabariak:**

- 5. lan-paketean (WP5) garatutako jarduerak koordinatzea: "Pilotuen ebaluazioa eta lortutako emaitzen analisia".
- Programaren hirugarren urtean Europa-mailan eta eskualde-mailan ezartzea (Europako bost herrialdetako 39 ikastetxe).
- Euskadi pilotatzeko definitu diren azken jarduerak koordinatzea Gasteizko sei ikastetxetan: esku hartzeko hiru ikastetxe (Herrandarren BHI, Ikasbidea IPI eta Pr. de María HLBHIP) eta kontroleko hirutan (Unamuno BHI, Samaniego IPI eta San Prudencio HLHIK).
- Azken datuen analisia egin da Europa-mailan (n = 4460 nerabe, n = 3812 familia, n = 625 irakasle).
- Partzuergoaren bi bilera orokor antolatzea, lortutako jarduerak eta mugarriak berrikusteko.
- Proiektuaren amaierako ekitaldia online formatuan⁸ antolatzea, 100 lagunetik gorako partaidetzarekin.
- Eskuliburu hauen azken edukiak berrikustea eta garatzea: Ongizatea guretzat ("Well-being for US") eta Ongizatea guztiontzat ("Well-being for ALL").
- Hiru artikuluko zientifiko argitaratzea.
- URPRIGHT nazioarteko, Estatuko eta tokiko zortzi kongresutan aurkeztea.
- Proiektuak epe luzera izango duen inpaktuaren analisiari buruzko txostena egitea.

⁸ <https://www.kronikgune.org/evento-final-del-proyecto-upright/>

- **Akronimoa:** YOUNG50
- **Izen osoa:** YOUNG50 #Stay Healthy - Cardiovascular Risk Prevention
- **Proiektuaren deialdia:** HP-PJ-02-2018
- **Proiektu-zk.:** 847130
- **Erakunde finantzatzailea:** 3. Osasun Programa
- **Aurrekontu globala:** 1.638.759 €
- **Iraupena:** 2019ko maiatzaren 1etik 2023ko urtarrilaren 31ra
- **Proiektuaren koordinazioa:** Azienda ULSS 6 EUGANEA (Padova, Italia)
- **Página Web:** <https://young50.eu/>
- **Deskribapena:** Gaixotasun kardiobaskularrak dira Europar Batasuneko heriotza-kausa nagusietako bat, eta 1,8 milioi heriotza baino gehiago eragiten dituzte urtean, baita bizitza-urte potentzialen galera handia ere.
Ebidentzia zientifikoak indartu egin du prebentziorako esku-hartzeek duten garrantzia gaixotasun kardiobaskularren agerpena saihesteko edo atzeratzeko, bizimodu osasungarriak hartuta. YOUNG50ek helburu du Italian ezarritako CARDIO 50 jardunbide egokia Europako hainbat herrialdetan eskalatzea. 50 urtetik gorako herritarren artean arrisku kardiobaskularra detektatzeko programa bat da CARDIO 50.
- **Helburua:** Gaixotasun kardiobaskularren prebentzioa sustatzea, Italiako CARDIO 50 baheketa-eredua Europako hiru herrialdetara transferituta (Lituania, Errumania eta Luxenburgo).
Jardunbide egokia transferitzeko, ahalik eta iraunkortasun eta aplikagarritasun handiena bermatuko da biztanleriaren sektore guztietan, eta hedapena egokituko da emaitzarik onenak bermatzeko.
- **Espero diren emaitzak:**
 - Europako herrialdeen artean jardunbide egokiak trukatzeko, bizimodu osasungarria sustatzeko eta gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzeko, eta sareak, elkarteak eta lankidetzak sortzea erakunde profesionalekin, gobernukoekin eta gobernu kanpokoekin.
 - Bizimodu osasungarria izateko aukerak areagotzea, gaixotasun kardiobaskularrak prebenitzea eta ongizatea lortzea Young50 programaren bidez. 50 urtetik gorako pertsonen eta adinekoen bizi-estiloa eta gaixotasun kardiobaskularretarako arrisku-faktore biologikoak ezagutuko dira, eta etorkizunean arlo horretako hezkuntza- eta politika-neurriak garatzea gidatuko duen proiektuaren emaitzak ebaluatuko dira.



- **2021ko jarduera nabariak:**

- Ezarri beharreko jardunbide egokiaren epe laburreko inpaktuaren esku-hartzeak aztertzeko plana diseinatzea.
- Osasun-arloko emaitza-prozesuen adierazleak definitzea.
- CARDIO 50 transferitzeko jardueretan laguntzea herrialde pilotuetan.

Europako proiektuak egituratzen dituzten laneko arloak edo diziplinak dira lan-paketeak ("Work Packages", WP siglak ingelesez). Oro har, lan-paketeek helburu espezifiko batzuk izaten dituzte, proiektuko kide guztiek Europako Batzordearekin akordioa ("Grant Agreement") sinatzean ezartzen den denbora-tarte zehatzean lortu eta egin behar dituzten zenbait ataza, entregagai ("deliverables") eta mugarri ("milestones").

2021ean, Kronikgune Institutuak Europako sei projektutan parte hartu du, eta bederatzi lan-pakete gidatu ditu. Jarraian, 10. taulan, Kronikgune Institutuak urtean zehar gidatutako lan-paketeen zenbakia eta izena aurkezten dira:

Proiektua	Lan-paketea ("Work Package"- WP)
ADLIFE	WP1: Proiektuaren koordinazioa (liderra) WP9: Pilotuen ebaluazioa eta emaitzen analisia (liderra) WP11: Eskakizun etikoak (liderra)
JADECARE	WP1: Proiektuaren koordinazioa (liderra) WP5: Euskadiko jardunbide egokia: "Zahartzearen eta kronikotasunaren arloko euskal osasun-estrategia: arreta integratua" (liderra)
UPRIGHT	WP1: Proiektuaren koordinazioa (liderra) WP5: Programaren ebaluazioa bost eskualde pilotuetan eta lortutako emaitzen analisia (liderra)
SCIROCCO Exchange	WP6: Dauden aktiboak identifikatzea (liderra)
Young50	WP4: Egoeraren analisia, bideragarritasunaren eta beharren ebaluazioa eta ezarpenerako ekintza-planen definizioa (liderra)

10. taula. Kronikgune Institutuak 2021ean gidatutako proiektuen izena eta lan-paketearen zenbakia eta izena.

Era berean, Kronikgune Institutuak 21 entregagai ("deliverables") landu ditu eta horiek entregatzen lagundu du. Horiek 2021ean zehar Europako Batzordearekin konprometitu eta sei proiektuen ekintza-planetan zehaztuta daude. Aurkeztutako entregagaiak 11. taulan laburbiltzen dira:

Proiektua	Entregagaiak ("deliverables")
ADLIFE	D7.1 ADLIFE Patient Reported Outcome Measures - ADLIFEko pazienteek informatutako emaitza-neurriak D3.1 ADLIFE Software requirement and architectural description - Softwarearen eskakizunak eta ADLIFE arkitekturaren deskribapena D7.2 Patient Empowerment Materials and Interventions - Pazientea ahalduntzeko materialak eta esku-hartzeak D7.3 Shared decision making tool Requirements - Erabakiak hartzeko tresna partekatua eskakizunak D6.1 ADLIFE Decision Support Modules Scope and Content - Erabakiari laguntzeko moduluak, irismena eta edukia ADLIFEn 1st Periodic Review for M1 to M20 of the project (2021eko urria)
GATEKEEPER	D1.2.2 Periodic Management Report D6.2.2 Early detection and interventions operational planning (2. bertsioa) D7.5 Updated KPI Evolution Report (I to IX) D9.5 GATEKEEPER Exploitation and sustainability D9.3.3 Dissemination & Communication
JADECARE	D1.1 Project Handbook D3.1 Impact Assessment plana D3.2 Interim Evaluation Report D2.1 Project Leaflet D2.2 Dissemination and communication strategy and plan D2.3 Project Website D4.1 Good Practices lokala eta Action plans

Proiektua	Entregagaiak ("deliverables")
SCIROCCO Exchange	D6.1. Capacity building asset mapping
UPRIGHT	D5.4 Ebaluazioaren amaiera
	D6.3 Finala report on dissemination activities
	D4.3 Final report of the UPRIGHT pilot execution

11. taula. Kronikgune Institutuak 2021ean lagundu duen entregagaiak ("deliverables").

Aurretik deskribatutako zortzi proiektuetan, 4.625.998 euroko finantzaketa lortu du Europak Euskal Osasun Sistema Publikorako. Gatekeeper proiektuan, Osakidetzari emandako finantzaketa Biogurutzeta Bizkaia institutuak kudeatzen du.

2020an hasi diren eta Kronikgune Institutuak Europa-mailan koordinatzen dituen bi proiektuak ADLIFE (H2020) eta JADECARE (CHAFEA) dira.

12. taulan, proiektu bakoitzean lortutako finantzaketa ageri da eurotan, Kronikgune Instituturako eta Osakidetzarako banakatuta:

Proiektua	Programa	Kronikgune Institutuari emandako finantzaketa	Osakidetzari emandako finantzaketa	EOSPerako emandako finantzaketa guztira
UPRIGHT	H2020	800.625	125.938	926.563
ADLIFE	H2020	742.875	316.875	1.059.750
GATEKEEPER	H2020	172.500	835.000	1.007.500
H2020 GUZTIRA		1.716.000	1.277.813	2.993.813
JADECARE	3HP	430.104	-	430.104
SCIROCCO Exchange	3HP	133.536	81.726	215.262
Young50	3HP	128.978	-	128.978
3HP GUZTIRA		692.618	81.726	774.344
EUROPAKO BATZORDEA GUZTIRA		2.408.618	1.359.539	3.768.157

12. taula. Kronikgune Institutuak 2021eko abenduaren 31n aktibo zeuden Europako proiektuetan lortutako finantzaketa.

5.1.2. Karlos III.a Osasun Institutuaren (ISCIII) ikerketa-proiektuak

2021-2023 Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako Estatuko Plana (PEICTI)⁹ da Estatuko

Administrazio Orokorraren (AGE) tresna nagusia Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Espainiako Estrategiaren (EECTI) helburuak garatu eta lortzeko. I+G+b 2017-2020 Estatuko Planean aurreikusten zenez, Estatuko lau programa biltzen ditu, 2021-2027 EECTIn ezarritako helburu orokorre dagozkienak. EECTI 2021-2027 Estatuko bi planetan egituratzen da: 2021-2023 Estatu Plana, une honetan gauzatzen ari dena, eta 2024-2027 Estatu Plana. Planek barne hartzen dituzte AGEk egiten dituen I+G+b-ra bideratutako Estatuko laguntzak. Laguntza horietako asko lehiaketa bidezko konkurrentziako erregimeneko deialdien bidez egikaritzen dira.

Karlos III.a Osasun Institutuaren (aurrerantzean, ISCIII) helburua da heritar guztien osasuna hobetzen laguntzea, zientziaren eta ezagutza sortzearen bidez, eta, bere eginkizunen artean dago osasuna babestera eta hobetzera bideratutako ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak sustatzea eta koordinatzea. Gainera, 2021-2023 PEICTIaren Osasuneko Ekintza Estrategikoko jardueren erakunde kudeatzailea da ISCIII.

2017-2020 Estatuko I+G Planaren esparruan¹⁰, erronka nabarmenetako bat zen osasunaren, aldaketa demografikoaren eta ongizatearen arloko erronka. Erronka horren barruan sartzen da, ekintza programatiko espezifiko gisa, 2017-2020 aldirako Osasuneko Ekintza Estrategikoa (aurrerantzean, OEE). Jarduera instrumental sinergiko eta osagarrien multzo bat proposatzen zen Estatuko azpiprograma hauen barruan: Prestakuntza, Laneratzea eta Mugikortasuna (Talentua eta horren Enplegagarritasuna Sustatzeko Estatuko Programa); Institutioak Indartzea eta Ezagutza Sortzea (Ezagutza Sortzeko eta I+G+b-ko Espainiako Sistema Indartzeko Estatuko Programa). Laguntzak dirulaguntzak dira, Karlos III.a Osasun Institutuaren aurrekontu-aplikazioen kargura, eta Eskualde Garapeneko Europako Funtsaren (aurrerantzean EGEF) eta Europako Gizarte Funtsaren kargura kofinantzatu daitezke, hala badagokio zehazten diren eremuen arabera.

2021ean, Kronikgune Institutuak ISCIIIk finantzatutako hainbat proiektutan lan egiten eta ikerketa-jarduerak egiten jarraitu du. Kronikgune Institutuak garatu dituen bost proiektu 2018, 2019 eta 2020ko deialdian emandako laguntzen barruan daude. 2017ko abenduaren 29ko



⁹ <https://www.ciencia.gob.es/Estrategias-y-Planes/Planes-y-programas/Plan-Estatal-de-Investigacion-Cientifica-y-Tecnica-y-de-Innovacion-PEICTI-2021-2023.html?sessionid=1D9312D4979D0A8A09B9DA1D484B31BB.2>

¹⁰ <https://www.ciencia.gob.es/InfoGeneralPortal/documento/4df69bec-c113-4e22-ae45-37ba72d53b7c>

bileran Ministroen Kontseiluak onartutako Ikerketa Zientifiko eta Teknikoko eta Berrikuntzako 2017-2020 aldirako Estatuko Planaren barruan sartzen dira laguntza horiek.

Atal honetan, Kronikgune Institutua aurrera eramaten ari den sei proiektuak laburbiltzen dira:

- **Izen osoa:** Bularreko minbizia duten pazienteen kohorte prospektibo batean bi urtetik bost urtera bitarteko jarraipenean aurkako emaitzak izateko arrisku-faktoreak. CAMISS II azterketa multizentrikoa
- **Deialdia:** Osasuneko ikerketa-proiektuen 2018ko deialdia
- **Erakunde finantzatzailea:** Karlos III.a Osasun Institutua
- **Proiektu-zk.:** PI18/00674.
- **Ikertzaile nagusia:** Nerea González.
- **Emandako finantzaketa:** 53.240 €.
- **Iraupena:** 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
- **Deskribapena:** Kohorte prospektiboan behaketa-azterketa bat da, lau autonomia erkidegotako 11 ospitaleetan egin beharrekoa. FIS proiektu batekin eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren beste batekin eratutako kohorte batetik abiatzen da (CaMISS: bularreko minbiziaren osasun-zerbitzuetako ikerketa). Paziente horien jarraipena egitea proposatzen da, tratamendu indizearen ondorengo bosgarren urtetik aurrera.
- **Helburuak:**
 - Bularreko minbizia duten pazienteetan, bereiz identifikatzea lehen tratamenduaren ondorengo 2 eta 5 urte bitartean aurkako gertakari hauek agertzeko arrisku-faktoreak (eta horien kategoriak): a) heriotza; b) errejidiba; c) berriz ospitaleratzea; konplikazioak.
 - Arau prediktiboak sortzea aurreko gertakari/emaitza bakoitzerako (batez ere, hilkortasuna, errejidiba, berriz ospitaleratzea edo konplikazioak), eta horiek bi metodologia desberdinekin baliozkotzea.
 - Ospitaleen arteko aldakortasunarekin lotutako faktoreak identifikatzea, baita ekitate-arazoak hautematea ere (adinaren, sexuaren, klase sozialaren, jaiotza-herrialdearen eta bizileku-eremuaren arabera), tratamenduei, proba diagnostikoei, jarraipenari edo laguntza psikosoziala izateari dagokienez, eta 5. urtean lortutako emaitzekin lotzea (hilkortasunean, errejidiban, berriz ospitaleratzean, konplikazioetan edo bizi-kalitatean izandako eta pazienteak adierazitako aldaketetan).
 - Identifikatzea zer faktorek duten zerikusia ebaketaren ondorengo 5. urteko bizi-kalitatearen aldaketekin, inolako tratamendurik egin aurretik eta bi urtera pazienteak duen egoerarekin. Paziente horien bizi-kalitatean gertatzen diren aldaketen arabera erregela prediktiboak sortzea.
 - Pazienteen eta profesionalen ikuspegitik, ikerketa-beharrak identifikatzea eta lehenestea, orain arte aurretiazko azterketetan jaso ez direnak, eta paziente horien jarraipenean jaso beharreko informazioari gehituko zaizkionak.
- **Azterketaren diseinua:** Euskadiko ospitale hauek parte hartu dute: Galdakao-Usansolo Ospitalea, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea, Donostia Unibertsitate Ospitalea, Onkologikoa eta Araba Unibertsitate Ospitalea; Katalunian,

Hospital del Mar; Andaluzian, Hospital de Antequera eta Hospital Costa del Sol; eta Kanarietan, Complejo Materno-Insular de Gran Canaria eta Hospital Universitario de Canarias, Tenerifen.

- **Datuen bilketa eta analisisa:** Metodologia mistoa erabiliko da, lehen fase kualitatibo batekin. Fase horretan, pazienteei eta profesionalei kontsulta egingo zaie, orain arte ebidentzia zientifiko txikia zuten ikerketa-beharrak identifikatzeko, ondoren bigarren fasean jasotzen diren aldagaietan txertatu ahal izateko. Kontsultak Delphi adostasun-teknikaren bidez bideratuko dira, hiru txandarekin, gehi talde nominal bat fasearen amaieran. Bigarren fasean datu kuantitatiboak bilduko dira, historia klinikoa eta pazienteek betetzen dituzten galdetegiak berrikusita. Aldez aurretik, baimen informatua sinatuko da.

- **Izen osoa:** Gaixotasunarekin lotutako desnutrizioa duten paziente ospitaleratuekiko esku-hartze baten eraginkortasunaren eta eraginkortasun-kostuaren ebaluazioa
 - **Deialdia:** Osasuneko ikerketa-proiektuen 2018ko deialdia
 - **Erakunde finantzatzailea:** Karlos III.a Osasun Institutua
 - **Proiektu-zk.:** PI18/00698.
 - **Ikertzaile nagusia:** José M^a Quintana
 - **Emandako finantzaketa:** 128.260 €.
 - **Iraupena:** 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
 - **Deskribapena:** Deskribapena: hautatutako paziente eta zentro guztietan nutrizio-baheketa bat egin ondoren, hiru adar ebaluatuko dira (hiru kohorte prospektibo). Lehenengo adarrean esku-hartze bat egingo da baheketaren ondoren gaixotasunarekin lotutako desnutrizioa (GLD) edo GLDrako arriskua identifikatzen den pazienteen taldeetan, eta gainerako pazienteen jarraipena egingo da. Bigarren kohortean/adarrean, esku-hartzea paziente bakoitzaren ardura duten fakultatiboek eskatuta egiten den pazienteak sartuko dira, eta hirugarren adar/kohorte batean, ospitaleko ohiko jardunari jarraitzen zaio, inolako esku-hartze espliziturik gabe, baheketa salbuetsita, adar guztietan egingo baita.
 - **Helburuak:** Ospitaleratutako pazienteak artatzeko hiru estrategiaren eraginkortasuna eta kostu-eraginkortasuna ebaluatzea, gaixotasunarekin lotutako desnutrizioari (GLD) dagokionez, emaitza hauen arabera: ospitaleratze indizearen egonaldi-egunak, ospitaleratzearen egunak eta ospitaleratzearen ondorengo urtera arteko hilkortasun-tasa, konplikazioen agerpena, pisuaren eta nutrizio-egoeraren aldaketak, osasunarekin eta egoera funtzionalarekin lotutako bizi-kalitatearen aldaketak, berriz ospitaleratzeak, osasun-baliabideen erabilera eta (lehen mailako arretako kontsultak, ospitalea eta urgentziak) eta kostuak.
 - **Azterketaren diseinua:** Osakidetzako hiru osasun-zentrok parte hartuko dute proiektuan. Esku-hartzea (1. adarra) egingo den lehen zentroa Galdakao-Usansoloko Ospitalea (GUO) izango da. Bertan 300.000 biztanle hiritar edo erdihiritar inguru artatzen dira. Bigarren zentroa Basurtuko Unibertsitate Ospitalea (BUO) izango da. Ospitale horrek Bilboko 350.000 biztanle hiritar inguru artatzen ditu eta, bertan, eskariaren arabera esku-hartzea egingo den (2. adarra). Hirugarren zentroak, Donostia Unibertsitate Ospitaleak (DUO), non ez den esku-hartze antolaturik egingo (3. adarra), Donostia eta inguruko biztanleak artatzen ditu, eta 400.000 biztanle hiritar eta erdihiritar inguru hartzen ditu. Guztiek antzeko giza baliabideak eta baliabide teknologikoak dituzte, eta artatzen duten biztanleriak antzeko ezaugarri soziodemografikoak eta klinikoak ditu.
- Azterketa honetarako bi paziente multzo handi hautatu dira, batzuk kirurgiaren arlokoak eta beste batzuk medikuntzaren arlokoak, eta horiek, aldi berean eta koordinatuta, hiru zentroetan errekrutatuko dira deskribatutako irizpideen arabera.

- **Izen osoa:** Hipertentsio arterialak edozein kausagatik eta kausa kardiobaskularragatik populazio orokorrean eragindako hilkortasunean duen inpaktuari buruzko azterketa
- **Deialdia:** Osasuneko ikerketa-proiektuen 2018ko deialdia
- **Erakunde finantzatzailea:** Karlos III.a Osasun Institutua
- **Proiektu zk.:** PI18/00938
- **Ikertzaile nagusia:** Amaia Bilbao
- **Emandako finantzaketa:** 41.908 €.
- **Iraupena:** 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
- **Deskribapena:** Atzera begirako kohorteen azterketa multizentrikoa. Esposizio-kohortea definitzeko, 2005-2006 urteetan sekundarioa ez den HTAko "de novo" diagnostikoa duten 18 urtetik gorako subjektuak hartuko dira kontuan. Esposiziopean ez dauden kohortea eraikitzeko, aldi berean HTAko diagnostikorik ez duen subjektu bat sartuko da azaldutako subjektu bakoitzeko.
- **Helburuak:**
 - Nagusia: Azterketa honen helburua da hipertentsio arterialaren diagnostikoak kausa guztiengatik eta kausa kardiobaskularragatik eragindako hilkortasunean duen inpaktua ebaluatzea, gutxienez 10 urtean zehar.
 - Bigarren mailakoak:
 - Europako gidetako I., II. eta III. mailako hipertentsio arteriala duten subjektuen artean hamar urteko jarraipena egin ondoren, heriotza-tasa osoaren eta kausa kardiobaskularraren ondoriozkoaren artean dauden aldeak baloratzea.
 - Presio arterialaren zifrek heriotza-tasa osoan eta kausa kardiobaskularraren ondoriozkoan duten kontrol-mailaren inpaktua ebaluatzea.
 - Ebaluatzea zein inpaktu duten hainbat faktorek heriotza-tasa globalean eta kausa kardiobaskularraren ondoriozkoan hipertentsio arteriala duten pazienteengan (kontrol-mailaren arabera doitu):
 - Komorbiditatea: hipertentsio arteriala diagnostikatzen den unean diabetesa, gaixotasun kardiobaskularra, obesitatea, tabakismoa edo xede-organoan kaltea egoteak definitzen du.
 - Tratamenduan erabilitako farmakoen familia: IECA, ARA2, diuretikoak, kaltzioaren antagonistak, betablokeatzaileak, alfablokeatzaileak edo horien konbinazioak.
- **Azterketaren diseinua:** Maila sozioekonomikoan (osasun-zentroaren gabezia-indizearen bidez neurtuta), helburua da aztertzea gaixo hipertentsoen zein erlazio dagoen osasun-zerbitzuen erabileraren (medikuari eta erizainari egindako bisita-kopuruaren eta pazientearekin osasun-zentroan urtean emandako denboraren bidez neurtuta) eta haien heriotza-tasa osoaren eta kausa kardiobaskularraren ondoriozkoaren artean. Era berean, analizatuko da Europako gidetako I., II. eta III. mailako hipertentsio arteriala duten

subjektuen artean zein alde dagoen gertaera kardiobaskularren tasan (giltzurruneko gaixotasun kronikoa, kardiopatia iskemikoa, gaixotasun zerebrobaskularra, gaixotasun arterial periferikoa).

- **Emaitzak:** Subjektuak inklusioaren unean parekatuko dira honako hauen arabera: osasun-zentroa, adina (bizitzaren hamarkada bera) eta DMaren edo gaixotasun kardiobaskularren presentzia (giltzurrun-gutxiegitasun kronikoa, istripu zerebrobaskular akutua, kardiopatia iskemikoa edo gaixotasun arterial periferikoa). Jarraipen-denbora azken bisitara, heriotzara edo galerara arte luzatuko da. Horrek gutxienez 12 urteko gehieneko behaketa-denbora eskaintzen du sartutako azken subjekturako. Kohorteak hiru autonomia-erkidegotako (Madril, Euskadi eta Kanariak) osasun-zentro guztietatik aterako dira.

- **Izen osoa:** Berrir ospitaleratzeko eta hiltzeko probabilitate handiena duten paziente pluripatologikoak identifikatzea. Pazientearekin lotutako aldagaien zeregina.
- **Deialdia:** Osasuneko ikerketa-proiektuen 2018ko deialdia
- **Erakunde finantzatzailea:** Karlos III.a Osasun Institutua
- **Espediente-zk.:** PI18/01438
- **Ikertzaile nagusia:** Susana García
- **Emandako finantzaketa:** 65.340 €.
- **Iraupena:** 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
- **Deskribapena:** Determinatzaile sozialak paziente pluripatologikoak berriz ospitaleratzeko eta hiltzeko probabilitatearekin erlazionatuta agertu dira.

Horiek, aldi berean, gero eta zaharragoak dira, eta, ondorioz, berriz ospitaleratzeko joera handiagoa dute, beren lehentasunak etxetik alde egin behar ez izatera bideratuta daudenean.

- **Helburuak:**
 - Pazientearekin (bizi-kalitatea, mendekotasun funtzionala, gizarte-laguntza, substantzien abusua) eta zaintzailearekin (zaintzailearen karga, gizarte-laguntza) zerikusia duten aldagai berriak identifikatzea, altarako trantsizio-aldian eta indize-gertakariaren urtebete arteko aldian berriz ospitaleratzeko eta hiltzeko probabilitatearekin lotuta daudenak.
 - Berriz ospitaleratzeko eta hilkortasuna aurreikusteko arauak sortzea eta barnean baliozkotzea altarako trantsizio-aldian eta indize-gertakariaren ondorengo urtebetera arte, aurretik identifikatutako aldagaietan eta aldagai klinikoetan oinarrituta. Kanpoko baliozkotasuna ebaluatzea pazienteen kohorte independente batean.
 - Aldeak identifikatzea altarako trantsizio-aldian (hau da, indize-gertakariaren ondorengo hilabeteen) berriz ospitaleratzeko diren pazienteen eta ospitaleratzeko ez diren artean.
- **Azterketaren diseinua:** Misto kualitatibo-kuantitatiboa, non 3 autonomia erkidegotako (Andaluzia, Katalunia eta Euskadi) 5 ospitalek parte hartuko duten. Olleroren irizpideetako bi edo gehiago betetzen dituzten pazienteak sartuko dira. Aldagaiak identifikatuko dira pazienteak eta zaintzaileak izango dituzten profesionalen talde nominalen eta foku-talde bidez. Horiek azken ereduaren sartuko dira aldagai klinikoekin batera —PROMak (osasunarekin lotutako bizi-kalitatea, zaintzailearen karga, gizarte-laguntza)—. Erregresio logistikoko / Cox erregresioko ereduak barruan garatu eta baliozkotuko dira, berriz ospitaleratzeko eta hiltzeko arriskua identifikatzeko, eta kanpoko kohorte batean baliozkotuko dira.
- **Emailtzak:** Paziente pluripatologikoak estratifikatzeko tresnak eman nahi zaizkio osasun-sistemari, esku-hartze indibidualizatuen premia handiena duten pazienteak identifikatzen laguntzeko.

- **Izen osoa:** Gertakari kaltegarrien eta bizi-kalitatearen arrisku faktoreak identifikatzea koloneko eta ondesteko minbizitik bizirik atera diren pazienteengan, kirurgiaren ondorengo 8 eta 10 jarraipen-urteetan zehar.
- **Deialdia:** Osasuneko ikerketa-proiektuen 2018ko deialdia
- **Erakunde finantzatzailea:** Karlos III.a Osasun Institutua
- **Espediente zenbakia:** PI18/01589
- **Ikertzaile nagusia:** Urko Aguirre
- **Emandako finantzaketa:** 50.215€.
- **Iraupena:** 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
- **Deskribapena:** Ikerketa honen helburua da, dagoeneko osatuta dagoen kohorte zabala baliatuz, koloneko eta ondesteko minbizitik bizirik atera diren eta bost urteko jarraipenaren ondoren gaixotasuna gainditu duten pazienteengan agertzen diren arazo klinikoak nahiz pazienteek hautemandakoak edo sozialak identifikatzea.
- **Helburuak:**
 - Koloneko edo ondesteko minbizia duten pazienteei ebakuntza kirurgikoa egin eta 8 eta 10 urtera agertzeko arrisku-faktoreak bereiz zehaztea eta haztatzea: a) heriotza; b) berriz ospitaleratzea; c) komorbiditate berriak agertzea eta d) beste lokalizazio batzuetako tumore berriak izatea paziente horietan.
 - Ebakuntzaren ondorengo 8. eta 10. urteetako bizi-kalitatearen aldaketekin zerikusia duten faktoreak identifikatzea, inolako tratamendurik egin aurretik pazienteak zuen egoerarekin alderatuta.
 - Bizi-kalitatean, antsietate- eta depresio-sintomatologian eta alderdi sozioekonomikoetan izandako aldaketetan desberdintasunak zehaztea 8 eta 10 urteen artean, biztanleria orokorrean izandakoarekin alderatuta.
 - Aurreko emaitzetako bakoitzerako iragarpen-arauak sortzea.
 - Baheketa bidez diagnostikatutako pazienteen eta sintomen presentziagatik diagnostikatutakoen arteko kontrako gertaeren eta berriz ospitaleratzeen kopurua alderatzea.
 - Ospitaleen arteko aldakortasuna eta ekitate-arazoak ebaluatzea.
- **Ikerketaren diseinua:** Koloneko edo ondesteko minbizia duten pazienteen kohorte prospektibo dagoeneko osatuen jarraipen-azterketa (CARESS-CCR, CARESS-CCR-II proiektua), 2010ko amaiera aldearen 2011ko amaiera aldearen artean. 8 eta 10 urterako jarraipena egingo da.

Azterketan, Espainia osoko 19 zentrok hartuko dute parte, tartean 7 ospitale publikok (Euskadiko 5ek eta Kataluniako 2k). Aztertu beharrekoak: koloneko edo ondesteko minbizia prospektiboki diagnostikatutako pazienteak, CARESS-CCR azterketaren lehen urtean erreklutatutak eta ebakuntza kirurgikoa izan dutenak, gaur egun bizirik daudenak, biztanleria orokorarekin alderatuta (minbizirik gabeko subjektuak).

Honako aldagai hauek aztertuko dira: parametro soziodemografikoak, klinikoak (tumoreari, ebakuntzari, ospitaleratzeari eta urtebetera, bi urtera, hiru urtera, bost urtera, zortzi urtera eta hamar urtera egindako segimenduari buruzkoak) eta pazienteari emandako galdetegiak.

- **Emailtzak:** Eredu prediktiboak sortuko dira, aztertu beharreko emaitzen balizko parametro prediktiboak identifikatzeko. Diskriminatzeko ahalmen egokiko eredu prediktiboak sortuko dira, eta berriz lagintzeko teknikak aplikatuko dira, barne-baliozkotze gisa. Eredu orokortu mistoak eta Cox ereduak erabiliko dira.

- **Izen osoa:** Paziente pluripatologikoei arreta emateko eredu pertsonalizatua diseinatzea, ezartzea eta ebaluatzea, adimen artifizialaz lagunduta.
- **Deialdia:** Osasuneko ikerketa-proiektuen 2017ko deialdia
- **Erakunde finantzatzailea:** Karlos III.a Osasun Institutua
- **Espediente-zk.:** PI17/02129
- **Ikertzaile nagusi koordinatzailea:** Biodonostia (Marisa Merino)
- **Kronikguneko ikertzaile nagusia:** Ane Fullaondo
- **Iraupena:** 2018ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
- **Deskribapena:** Biztanleriaren bilakaera demografikoak paziente pluripatologiko konplexuen prebalentzia areagotzea dakar. Arreta-premien arabera azpitaldeak identifikatzeko adimen artifizialeko teknikak erabiliz gero, benetan onura aterako lieketenei eskaini ahal izango litzazkieke esku-hartzeak. Horrela, horien erabilgarritasuna maximizatuko litzateke. Diagnostikoa laguntzeko sistema aditu bat ezartzeak aukera emango luke paziente pluripatologikoen arrisku indibidualaren baloraziorantz aurrera egiteko eta, horrekin batera, plan pertsonalizatuak ezartzeko.
- **Helburuak:**
 - Adimen artifizialean oinarritutako sistema aditu bat diseinatzea eta garatzea, paziente pluripatologikoak arreta-premien arabera bereizteko. Horretarako, populazio pluripatologiko konplexuaren eta estratifikazio hierarkikoaren miaketa interaktibo eta dinamikorako tresnak garatuko dira.
 - Paziente pluripatologikoentzako medikuntza pertsonalizatuko eredu baten inpaktua diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, erabaki klinikoak hartzen laguntzeko sistema adituetan oinarrituta.
 - Antolaketa-eredua diseinatzea
 - Eredu hori azterketa pilotu batean ezartzea
 - Esku-hartzearen eraginkortasun-kostua ebaluatzea
- **Azterketaren diseinua:** Azterketa ia esperimental bat egingo da, esku hartu aurreko datuak esku hartu ondorengo datuekin alderatzeko (test aurreko eta test ondorengo azterketa). Gainera, ausazkotu gabeko kontrol-talde bat gehitu da (Debagoieneko ESIa). Horrela, bi neurri (aurrekoa eta ondorengoa) izango lirateke bi laginetan eta esku-hartze batean. Osakidetza populazio-estratifikaziorako tresnaren bidez identifikatutako paziente pluripatologiko konplexuak sartuko dira. Kanpoan geratuko dira zainketa aringarrien fasean dauden pazienteak edo, aurreikuspenen arabera, planifikatutako jarraipen-denborara iritsi ezin izango direnak. Era berean, jarraipenean izandako galerak eta horien arrazoiak (abandonua, heriotza...) baloratuko dira.
Profesional eta pazienteentzako prestakuntza-programa egituratu bat diseinatzea, esku hartu aurretik, esku-hartzearen arrakasta bermatzeko.
- **Rola:** Kronikgune Institutua, proiektuko erakunde laguntzaile gisa.

- **Izen osoa:** Covid-19ak eragindako infekzioaren kategorizazio kliniko: estratifikazio pronostikoa eta konplikazioak.
- **Deialdia:** 2020ko aurrekontuko COVID19 FUNTSA deialdia: "SARS-CoV2 birusa ikertzeko proiektu eta programetarako zuzeneko dirulaguntzak"
- **Erakunde finantzatzailea:** Karlos III.a Osasun Institutua
- **Proiektu-zk.:** COV20/00459
- **Ikertzaile nagusia:** Susana García
- **Emandako finantzaketa:** 131.500 €
- **Iraupena:** 2020ko maiatzaren 1etik 2021eko urriaren 31ra
- **Deskribapena:** Kohorteen azterketa prospektibo honetan COVID-19 gaixotasunagatik ospitaleratutako pazienteak sartuko dira, eta osasun-sistemeekin lehen kontaktua izan eta hiru hilabetera arte egingo zaie jarraipena. Kanpoan geratzen da populazio pediatrikoa.
- **Helburuak:**
 - Bilakaera txarraren arriskua estratifikatzeko eskalak sortzea COVID-19arekin kutsatutako pazienteetan, eta gaixoen profil ebolutiboa sortzea.
 - Tratamenduaren eraginkortasuna eta proba diagnostikoak baloratzea.
 - Irisgarritasuna, ekitatea, aldakortasuna eta kostuak ebaluatzea.
- **Azterketaren diseinua:** Informazioa eskuz/automatikoki aterako da historia kliniko elektronikotik. Besteak beste, parametro hauek jasoko dira: aurrekari epidemiologikoak, sintomen hasiera, agerpen klinikoak, egindako probak, tratamenduak eta alta eman eta 3 hilabetera arteko bilakaera. Datuen kalitatea egiaztatuko da, eta eskuz bilatuko dira datu-meatzaritzan eta Adimen Artifizialeko adituek hautematen dituzten desadostasunak.
- **Esku-hartzea:** Pandemiaren lehen faseetik, Covid-19 gaixotasunagatik ospitaleratutako 1.650 paziente errekrutatuko dira: Euskadiko 900 (Galdakao-Usansolo Ospitalea, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea eta Arabako Unibertsitate Ospitalea), deribazioko eta barne-balidazioko kohortea osatuko dutenak; eta 750 paziente Costa del Sol (Andaluzia), Complejo Hospital Universitario de Canarias / Insular Materno-infantil, Hospital general de Gran Canaria eta Hospital del Mar ospitaleetakoak, kanpo-balidazioko kohortea osatuko dutenak. Bigarren fasean (udazkenean izatea espero da), 850 paziente errekrutatuko dira parte hartzen duten zentro guztien artean, kanpoko balidazio-prozesuarekin jarraitzeko. Bigarren bolada hori egiten ez bada, lehen boladako 850 paziente gehiago errekrutatuko dira.
- **Datuen analisia:** Datuak analizatzeko, honako hauek erabiliko dira: biziraupeneko eredu klasikoak, erregresio logistikoa, eredu orokortu linealak eta eboluzio txarraren arriskua ebaluatuko duten adimen artifizialeko teknikak. Era berean, osasun-arretaren kostua ere baloratuko da. Eraitza gisa, erabakiak hartzeko datuak deribatuko dira.

5.1.3. Eusko Jaurlaritzaren ikerketa-proiektuak

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak hainbat programa ditu osasun-ikerketari laguntzeko, besteak beste: "2019ko osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea",¹¹ "2020ko osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak: Osasun-arloko ikerketa estrategikoa sustatzea", eta "2021eko osasun-arloko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea"¹². Laguntza horien onuradun izango dira, soil-soilik, Osasun Ikerketako Institutuen kategorietan akreditatutako ZTBESeko eragileak eta Osasun Sistemako I+G+b erakundeak lehenengo deialdian, eta ZTBESeko eragileak, edozein kategoriatan akreditatuak, baldin eta proiektuak aurkezten badituzte medikuntza pertsonalizatuko arloetan (doitasuneko eta analitika aurreratuko tresnetako medikuntza barne), eta gailu medikoen, gaixotasun arraroen eta neurozientzien (neuroteknologia) arloetan, beste laguntzetarako. Aurkeztutako proiektuak gehienez 36 hilabeteko epean garatu behar dira, eta hasierako data laguntza eman den urtea izango dute.



Bestalde, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak urtero argitaratzen du Enpresen I+G-a bultzatzeko programa, "Hazitek 2019"¹³, "Hazitek 2020"¹⁴ edo "Hazitek 2021"¹⁵ deialdia. Ikerketa industrialeko edo garapen esperimentaleko proiektuak egiteko laguntzak dira. Proiektuak lehiaketa bidezkoak zein estrategikoak dira, eta Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-sektorean garatu behar dira, baita Euskadi 2020 eta 2030 Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Planeko espezializazio-esparruetan ere.



Hona hemen Kronikgune Institutuak 2020an garatutako ikerketa-proiektuak, Osasun Sailak eta Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailak finantzatuak:

¹¹ https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/promocion_actividad_investigadora_salud/web01-tramite/es/

¹²

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2021/promocion_actividad_investigadora_salud/web01-tramite/es/

¹³ https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2019/hazitek-2019/web01-tramite/es/

¹⁴ https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2020/hazitek/web01-tramite/es/

¹⁵ https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/2021/hazitek-2021/web01-tramite/es/

- **Izen osoa:** Gaixotasunarekin lotutako desnutrizioarekin ospitaleratuta dauden pazienteen egindako esku-hartzearen eraginkortasunaren eta kostu-eraginkortasunaren ebaluazioa.
- **Proiektuaren deialdia:** Osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2019: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea
- **Erakunde finantzatzailea:** Osasun Saila, Eusko Jaurilaritza
- **Espedientea:** 2019111043
- **Ikertzaile nagusia:** Susana García
- **Emandako finantzaketa:** 40.022 €
- **Iraupena:** 2019ko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra
- **Deskribapena:** Nutrizio-egoeraren balorazioa eta tratamendua lehentasunezko arretar-
arloa da gure osasun-sisteman, eta sistemaren eta gizartearen eskaerei hobeto erantzuteko
beharrezkoa den ezagutza sortzen eta integratzen lagunduko du. Aurkezten dugun proiektu
mota hemen sartzen da: Osasun-arloko ikerketa-jardueraren sustapena. Modalitatea: b)
Osasun-zerbitzuetako ikerketa-proiektuak. Gai-arloa: Diabetesa, obesitatea eta gaixotasun
endokrinoak; 3) puntukoa: Erabakiak hartzeko laguntza: (I) Erabakiak hartzea eta (ii)
Ekitatea, eraginkortasuna, efikazia eta efizientzia.
- **Helburua:** Ospitaleratutako pazienteak artatzeko hiru estrategiaren eraginkortasuna eta
kostu-eraginkortasuna ebaluatzea, gaixotasunarekin lotutako desnutrizioari dagokionez
(GLD), emaitza hauen arabera, besteak beste: indize-ospitaleratzearen egonaldi-egunak,
eta heriotza-tasaren balorazioa, konplikazioen agerpena, nutrizio-egoeraren aldaketak,
osasunarekin eta egoera funtzionalarekin lotutako bizi-kalitatea, berriz ospitaleratzeak,
osasun-baliabideen erabilera (lehen mailako arretako kontsultak, ospitalea eta larrialdiak),
baita prozesuaren ondoriozko kostuak ere.
- **Azterketaren diseinua:** Hiru ospitale publikok parte hartzen dute esku-hartzean, hiru
adarretan. Horietan, zentro guztietan egindako baheketa nutrizionalaren ondoren, lehen
adarrean/ospitalean nutrizio-hobekuntzan esku hartzeko estrategia bat sartzen da GLDa
edo GLDrako arriskua duten pazienteengan, eta gainerako pazienteen jarraipena egiten
da; bigarren kohorte/ospitale batek antzeko pazienteak izango ditu, eta nutrizioaren arloko
esku-hartzea izanez gero, eskaripean egingo dute medikuek, pazientearen kontura; eta
hirugarren adar/ospitale batean, zentroaren ohiko jardunbideari jarraituko zaio, esku-hartze
espliziturik gabe.
1.000 paziente sartuko dira zentro bakoitzean, digestio-zerbitzuetan (gibeleko edo
digestioko patologiengatik) eta kirurgia-zerbitzuan (tumoreetako eta digestio-aparatuko
patologiengatik) ospitaleratutako pazienteak, zehazki. Paziente guztien datu
soziodemografikoak eta klinikoak jasoko dira, baita ospitaleratzean zehar eta jarraipeneko
urtebetera arte deskribatutako parametroei buruzko datuak ere. Emaitza-aldagai
bakoitzera egokitutako erregresio anizkoitzeko ereduen bidez, eta "propensity scores" bidez
egindako doikuntzekin, emaitza-parametro bakoitzaren arabera hiru zentroak alderatzeko.

Kostu-eraginkortasun analisi bat egingo da, kalitatearen arabera doituako bizitza-urte (KADBU) bakoitzeko kostu inkrementalaren bidez. EuroQol-5d-5l galdetegiaren bidez neurtuko da balio hori.

- **Emailtzak:** Proiektuak osasun-sistemarentzat interesgarria izan nahi du: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak 2012ko ekainaren 25ean "Pazientearen segurtasun-estrategia 2020" argitaratu zuen. Lan horrek desnutrizio-arriskuan dauden paziente ospitaleratuekiko jardunbide egokiei buruzko atal bat du, eta horren helburuak dira ospitaleratzean nutrizio-baheketa bat ezartzea eta arrisku-talde guztiei zuzendutako ekintzak diseinatzea.
- **Rola:** Kronikgune Institutua proiektuaren koordinatzaile gisa.

- **Izen osoa:** Bularreko minbizia duten pazienteen kohorte prospektibo batean bi urtetik bost urtera bitarteko jarraipenean aurkako emaitzak izateko arrisku-faktoreak. CAMISS II azterketa multizentrikoa.
- **Proiektuaren deialdia:** Osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2019: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea
- **Erakunde finantzatzailea:** Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza
- **Espedientea:** 2019111042
- **Ikertzaile nagusia:** Nerea González
- **Emandako finantzaketa:** 62.879 €
- **Iraupena:** 2020ko urriaren 22tik 2023ko urriaren 31ra.
- **Deskribapena:** Proiektuaren asmoa da bularreko minbizia duten pazienteek jarraitzen duten prozesua eta erabiltzen dituzten osasun-zerbitzuak ebaluatzea. Besteak beste, helburu du, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan txertatuta, osasun-profesionalei eta pazienteei patologia horretan erabilitako prozedurekin edo tratamenduekin lotutako erabaki partekatuak hartzen lagunduko dieten eredu prediktiboak garatzea.
- **Helburua:** Proiektuaren helburu nagusiak hauek dira:
 - 1.- Bularreko minbizia duten pazienteen kasuan, bereiz identifikatzea lehenengo tratamenduaren ondorengo 6 urteetatik aurrera aurkako gertakari hauek agertzeko arrisku-faktoreak: a) heriotza; b) errezydiba; c) berriz ospitaleratzea; konplikazioak.
 - 2.- Aurreko gertakari/emaitza bakoitzerako arau prediktiboak sortzea eta bi metodologia desberdinekin baliozkotzea.
 - 3.- Ospitaleen arteko aldakortasunarekin lotutako faktoreak identifikatzea, eta tratamenduei, proba diagnostikoei, jarraipenari edo laguntza psikosoziala izateari buruzko ekitate-arazoak antzematea, baita 6. urtean lortutako emaitzekin horiek duten lotura ere.
 - 4.- Identifikatzea zer faktorek duten zerikusia indize-tratamenduaren ondorengo 6. urtetik aurrerako bizi-kalitatearen aldaketekin, inolako tratamendurik egin aurretik eta bi urtera pazienteak duen egoeraren aldean. Paziente horien bizi-kalitatean izaten diren aldaketen arabera erregela prediktiboak sortzea.
 - 5.- Aurretiazko azterketetan jaso ez diren ikerketa-beharrak identifikatzea eta lehenestea paziente eta profesionalen ikuspegitik. Behar horiek paziente horien jarraipenean jaso beharreko informazioan sartuko dira.
- **Azterketaren diseinua:** Kohorte prospektiboen behaketa-azterketa, Euskadiko 6 ospitaletan errekrutatutako bularreko minbizia duten pazienteen prospektiboki dagoeneko eratutako kohorte batetik abiatua, "CAMISS Bularreko minbiziako osasun-zerbitzuei buruzko ikerketa" proiektuaren barruan. Euskadin CAMISS proiektuan errekrutatutako diren eta proiektu honetan jarraipena egin zaien pazienteen kopurua 1.176 emakumekoa da guztira. Honako ospitale hauek parte hartzen dute proiektuan: Bizkaian, Galdakao-Usansolo Ospitalea, Gurutzetako

Unibertsitate Ospitalea eta Basurtuko Unibertsitate Ospitalea; Gipuzkoan, Donostia Unibertsitate Ospitalea eta Onkologikoa; eta Araban, Arabako Unibertsitate Ospitalea.

- **Emaizak:** Pazienteak diagnostikatu eta bost urtera, datu hauek ezagutu nahi dira: osasun-arloko emaitzak (hilkortasuna, errezidibak, konplikazioak...), paziente horiek hautemandako emaitzak, identifikatu gabeko beharrak eta osasun-baliabideen erabilera.
- **Rola:** Kronikgune Institutua proiektuaren koordinatzaile gisa.

- **Izen osoa:** Agerraldi epidemiologiko baten bilakaeraren modelizazio aurreratua, osasun-baliabideen erabilerari eta hilkortasunari dagokienez dituen ondorioak aurreikusteko.
- **Proiektuaren deialdia:** Osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2020: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea
- **Erakunde finantzatzailea:** Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza
- **Espedientea:** 2020111078
- **Kronikguneko ikertzaile nagusia:** José María Quintana
- **Emandako finantzaketa:** 75.838 €
- **Iraupena:** 2020ko azaroaren 1etik 2022ko urriaren 30era.
- **Deskribapena:** Deskribapena: Osasun-sistemak aldizka jasaten dituen epidemiek (urtero, gutxienez, gripearena, eta, gaur egun, SARS-CoV-2arena, eragin handiaz) informazio baliozkoa eta zehatza izatea eskatzen dute, baita epe labur, ertain eta luzerako iragarpenak denbora errealean egitea ere, osasun-sistemak aldeztu aurretik antola dezan horrek dakarren osasun-arazoari eta arazo sanitarioari aurre egin ahal izateko. Informazio horrek hainbat eremu eta esparru sanitariotik oro har lortzen ari diren emaitzak monitorizatzeko ere balio du. Baina, gainera, informazio hori erraz eta azkar ulertu behar dute hartzaileek.
- **Helburua:** Aztertzea osasun-sistemako datuetarako informazio- eta biltegiratze-sistemaren erabilgarritasuna, agerraldi epidemiologiko bat modelizatzeko beharrezkoak diren datuak azkar eta eraginkortasunez lortzeko iturri gisa; haren modelizazioa, izango duen bilakaera aurreikusteko; eta emaitzen aurkezpena, erabakiak hartzen laguntzeko. Proiektua orain arte SARS-CoV-2aren ondoriozko pandemian lortutako esperientzian oinarrituko da, datuak bilatzeko, erazteko, arazteko eta gehitzeko irizpide erdialde automatikoak eta malguak definitzeko. Irizpide horiek pandemiari buruzko datu osoekin baliozkotuko dira, eta 2020ko udazken-neguan edo ondoren epidemia horrek izan ditzakeen gorakadei eta urteko gripearen epidemiari aplikatuko zaizkie.
- **Azterlanaren diseinua:** Agerraldi epidemiologikoaren bilakaeraren modelizazioa garatuko duen behaketa-azterketa. Proposatutako modelizazio-mota SAIS eredu bat da (sentibera-arriskupekoa-infektatua-sendatua), adinaren arabera estratifikatua, ekuazio diferentzial arruntetan (EDA) oinarritua, infekzio sintomatikoak eta asintomatikoak bereizten dituen eta estimaziorako ikuspegi bayestarra duena, Euskadiko datuak aldeztu aurreko informazio gisa sartuta. Intzidentziaren eta intzidentzia metatuaren aurreikuspenak egingo dira: infektatuen kopurua, gaixoen kopurua (lehen mailako arretan artatutakoak eta ospitalekoak bereizita), ospitaleratze kopurua, ZIUn izandako ospitaleratze kopurua eta Euskadin eta erakunde sanitario integratuan (ESI) eta/edo ospitalean hildakoen kopurua.
- **Rola:** Kronikgune Institutua, proiektuaren koordinatzaile gisa.
- **Izen osoa:** Sorbaldako artikulazioan funtzioaren eta minaren balorazioa optimizatzen.

- **Proiektuaren deialdia:** Osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2019: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea
- **Espediente zenbakia:** 2019111019
- **Ikertzaile nagusi koordinatzailea:** Biodonostia (Kalliopi)
- **Kronikguneko ikertzaile nagusia:** Iñigo Gorostiza
- **Emandako finantzaketa:** 1.028,00 €
- **Iraupena:** 2019ko azaroaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra.
- **Erakunde finantzatzailea:** Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza
- **Deskribapena:** Azterketaren helburua da haztapen-algoritmo bat ematea, erraz ezartzekoa, ASES-p eskala autobetearen puntuazioen funtzionamendua hobetzeko. Horretarako, interes-eskalako itemen haztapen-ereduak ikertu eta alderatuko dira, eta hobekien funtzionatzen duen eredia proposatuko da.
- **Helburuak:**
 - Puntuazio haztatua ematea, erraz aplikatzekoa, ASES-p galdesortaren ezaugarri psikometrikoak hobetzeko.
 - ASES-p itemen haztapen-metodoak ikertzea, Rasch analisiaren, analisi faktorialaren eta korrespondentzia anizkoitzen analisiaren bidez.
 - Metodo bakoitzaren funtzionamendua egiaztatzea, ereduaren emaitzak alderatzea eta hobekien funtzionatzen duen haztapen-metodoa proposatzea.
- **Azterketaren diseinua:** Aurreko azterketa batean bildutako datuak erabiliko dira, sorbaldako patologia desberdinak dituzten $n = 161$ subjektutan, eta bi administrazio gehigarri, duela gutxi subjektu berei egindakoak, telefono bidezko elkarrizketen bidez, eskalaren test-retest fidagarritasuna aztertzeko helburuarekin (2016ko apirila-iraila). Sorbaldako patologian erabilitako ASES-p eskala autobeterako puntuazio haztatuen hiru mota zenbatetsiko dira. Zenbatespenen arteko alderaketak egingo dira eta puntuaziorik egokiena aukeratuko da.
- **Rola:** Kronikgune Institutua, proiektuko erakunde laguntzaile gisa.

- **Akronimoa:** PluDeeLea
- **Izen osoa:** Paziente pluripatologikoei arreta emateko Deep Learning eredu bat diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, erabakiak hartzen laguntzeko.
- **Proiektuaren deialdia:** Osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2019: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea
- **Erakunde finantzatzailea:** Osasun Saila, Eusko Jaurlaritza
- **Espedientea:** 2019222003
- **Ikertzaile nagusi koordinatzailea:** Biodonostia (Marisa Merino)
- **Kronikgune ko ikertzaile nagusia:** Ane Fullaondo
- **Emandako finantzaketa:** 0 €
- **Iraupena:** 2019ko azaroaren 1etik 2021eko abenduaren 31ra.
- **Deskribapena:** Proiektuak "Deep Learning" sistema bat garatu eta ezarri nahi du, paziente pluripatologikoen historia klinikoan jasotako datuetatik abiatuta, honako hau ahalbidetzeko:
 - Paziente pluripatologikoak arreta-beharren arabera sailkatzea, programa pertsonalizatuagoak ezartzeko.
 - Deskonpentsatuko diren pazienteak automatikoki eta goiz identifikatzea, haiekin modu proaktiboan jarduteko.
 - Ohiko jardunbidean, paziente pluripatologikoentzako arreta-eredu berri batean integratuta ezartzea.
- **Helburuak:**
 - Datu klinikoan Big Data prozesamenduan oinarritutako "Deep Learning" sistema bat diseinatzea eta garatzea, paziente pluripatologikoak arreta-premien arabera bereizteko eta sailkatzeko.
 - Paziente pluripatologikoentzako medikuntza pertsonalizatuko eredu bat diseinatu, ezarri eta ebaluatzea, erabakiak hartzen laguntzeko sistemetan oinarrituta.
 - Pazienteei arreta emateko eredu diseinatzea.
 - Eredu hori azterketa pilotu batean ezartzea.
 - Ezarritako arreta-eredua ebaluatzea.
- **Azterketaren diseinua:** "Deep Learning" sistema Osakidetza ko informazio-sisteman 2011tik dauden paziente pluripatologikoen datu guztietatik abiatuta eraiki da. Urte hartan lehen populazio-estratifikazioa egin zen, aldiari-aldiari eguneratua, eta harrezkero paziente horiek PPP etiketa batekin markatuta daude (proiekturako inklusio-irizpidea). Proiektuak datu-basea eraikiko du, eta informazioa modu anonimoan bilduko du, Osakidetza ko datuak ateratzeko OBI sistematik abiatuta. Adituek informazio hori iragazi eta analizatu ondoren, behin betiko datu-basea definituko da, eredu prediktiboak diseinatzeko.
- **Rola:** Kronikgune Institutua, proiektuko erakunde laguntzaile gisa.

- **Izen osoa:** Etxeko ospitalizazioko paziente subsidiarioen lan-karga aurreikusteko tresna
- **Proiektuaren deialdia:** Osasuneko ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak 2018: Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea
- **Erakunde finantzatzailea:** Osasun Saila, Eusko Jaurilaritza
- **Espedientea:** 2018111078
- **Ikertzaile nagusi koordinatzailea:** Biodonostia (Manuel Millet)
- **Kronikguneko ikertzaile nagusia:** Nerea González
- **Emandako finantzaketa:** 0 €
- **Iraupena:** 2018ko abenduaren 14tik 2023ko ekainaren 30era.
- **Deskribapena:** Etxeko ospitalizazioko (EO) zerbitzuetan sartzen diren pazienteen asistentzia-karga neurtzea funtsezko datua da zerbitzu horien baliabideen kudeaketa eta banaketa optimizatzeko.

Paziente bakoitzak behar duen denbora laguntza-karga hori islatzen duen aldagaia da. Denbora hori iragartzea, pazienteen ezaugarrien arabera, lagungarria izan daiteke baliabideak hobeto banatzen eta emandako zerbitzuak optimizatzeko.

- **Helburuak:**
 - Etxeko ospitalizazioko unitateen lan-karga aurreikusteko tresna bat sortzea.
 - Helburu espezifikoak:
 - EOaren esparruko karga asistentzialarekin lotutako faktoreei buruzko literaturaren bilaketa sistematikoa egitea.
 - Adituen adostasun- eta partaidetza-tekniken bidez, faktore garrantzitsuenen zerrenda adostea.
 - EOko pazienteen asistentzia-karga aurreikustea ahalbidetuko duen erraz aplikatzeko moduko eredu prediktiboa garatzea (faktore horietan oinarrituta) eta baliozkotzea.
- **Azterketaren diseinua:** Egungo proiektua hiru fasetan garatuko da: (i) Lehenengo fasean literatura zientifikoaren bilaketa bibliografiko sistematikoa egingo da, EOko pazienteen zaintzaz arduratzen diren osasun-profesionalen (medikuntza eta erizaintza) lan-kargari lotutako faktoreak zehazteko helburuarekin. (ii) Bigarren fasean, Delphi azterketa bat egingo da, profesionalen artean (medikuak eta erizainak) azkenean garatu nahi den tresnaren parte izango diren aldagaiei buruzko adostasuna lortzeko. (iii) Proiektuaren hirugarren fasean, eredu prediktibo bat egingo da, dirusarrera bakoitzak EO unitateetako profesionalei zenbat denbora emango dien kalkulatzeko.
- **Rola:** Kronikgune Institutua, proiektuko erakunde laguntzaile gisa.

- **Akronimoa:** COGNITIA
- **Izen osoa:** Osasun-arloko ezagutza eragingarria sortzeko ikaskuntza sakoneko sistemak.
- **Proiektuaren deialdia:** Hazitek 2019
- **Erakunde finantzatzailea:** Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila.
- **Koordinatzailea:** LKS, S. Coop.
- **Ikertzaile nagusia:** Eduardo Millán
- **Eskatutako finantzaketa:** 10.000 €
- **Iraupena:** 2019ko apirilaren 1etik 2021eko abenduaren 1era.
- **Deskribapena:** Osasun-erakundeek gero eta interes handiagoa dute Adimen Artifiziala (IA) aplikatzeko, osasun-arreta hobetzeko, kostuak murrizteko eta osasun-zerbitzuen efizientzia hobetzeko. Proiektuaren abiapuntua dira 2018an amaitutako OPTIMUS (HAZITEK) eta OMEGA3 (ELKARTEK) proiektuetan lortutako emaitzak. Proiektu horietan identifikatutako etorkizuneko lan-ildo eta beharretatik abiatuta, ikaskuntza sakoneko teknologien ikerketa industrialeko proiektu bat planteatzen da. Proiektu horrek bidea ematen du osasun-sektoreari aplikatutako AAKo teknologietan oinarritutako irtenbideetan jauzi kualitatibo bat egiteko.
- **Helburua:** Ikaskuntza sakoneko teknologiak ikertzea, garatzea eta baliozkotzea, eguneroko jardunean eredu prediktiboak txertatuta eragin daitekeen osasun-ezagutza sortzeko. Helburu orokor horretaz gain, proiektuak inpaktu sozioekonomikoko hainbat helburu zientifiko-teknologiko planteatzen ditu.
- **Azterketaren diseinua:** Itzuli beharko liratekeen esku-hartze desegokiak eta ebidentzietan oinarritutako gomendioak jorratuko dira. Horiek praktikan txertatu nahi dira. Memoriaren irakurketa errazteko, esku-hartze desegoki horiek uneoro aipatuko dira balio eskaseko esku-hartzeak (BEE) adierazpen orokorrarekin. BEE horien analisiak garrantzi berezia du paziente kronikoengan. Proiektu honetan, bihotz-gutxiegitasun kronikoan (BGK) oinarritutako kasu praktikoa bat planteatzen da. Ikerketaren kasuak oinarri hartuko du BGK-ko lehen gertaera baten ondorioz ospitaleratutako 40 urtetik gorako pazienteen kohorte dinamiko bat, 2010etik aurrerako datuekin sortutakoa. Hasierako datuen multzoan 2013-2018 arteko pazienteak bilduko dira (19.000 bat lagun). Izan ere, une horretan zabaldu zen Presbide (preskripzio elektronikoko sistema) Osakidetza informazio-sisteman.
- **Emailtzak:**
 - Larrialdietako laguntza-kargaren eredu prediktiboa.
 - Kudeaketa-aholkularitza hobetzea, honako hauekin lotuta: efizientzia operazionala eta Lean Management, antolaketa-prozesu eta -ereduen berringeriarritza, larrialdiaren esparruan.
 - Bihotz-gutxiegitasun kronikoa duten pazienteenganako eredu prediktiboan oinarritutako erabaki klinikoak hartzen laguntzeko sistema.

- AAko teknologiei buruzko datuen analisi-plataforma aurreratua, bezeroentzako ad hoc proiektuak garatzeko edo etorkizuneko produktu bertikal berriak garatzeko.
- **Rola:** Kronikgune ZTBESeko erakundeetako bat da, proiektuan azpikontrataturakoa.

- **Akronimoa:** FRAGICare
- **Izen osoa:** Pertsonen etxeko ahultasuna kudeatzeko plataforma
- **Proiektuaren deialdia:** Hazitek 2020
- **Erakunde finantzatzailea:** Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila.
- **Koordinatzailea:** Aurrerantz S. Coop de Iniciativa Social
- **Ikertzaile nagusia:** Ane Fullaondo
- **Eskatutako finantzaketa:** 37.500 €
- **Iraupena:** 2020ko martxoaren 15etik 2022ko abenduaren 31ra.
- **Deskribapena:** Ahultasuna prebenitzea osasun publikoaren lehentasuna bihurtu da Europan, Estatuan eta autonomia-erkidegoan. Osagai anitzeko ariketa fisikoko programak, eta bereziki indarraren entrenamendua dira esku-hartze eraginkorrenak ahultasuna prebenitzeko, eta desgaitasuna eta bestelako gertaera kaltegarriak atzeratzeko. Osasuna kudeatzeko plataforma pertsonalizatua eta adimenduna garatzea, pazientea eta haren familia inplikatu dituen, beren osasunaren kudeaketan parte har dezaten, eta arretan jarraitutasuna emango diona, gizarte-sistemaren (ELZ) eta osasun-sistemaren (lehen mailako arretako eta arreta espezializatuko zerbitzuak) arteko koordinazioaren bidez.
- **Helburua:** Etxez etxeko laguntza-zerbitzua (ELZ) erabiltzen duten 70 urtetik gorako pertsonen ahultasuna kudeatzeko plataforma teknologiko bat diseinatzea, garatzea eta ebaluatzea, pertsona ahulak edo aurreahulak detektatzeko, bizimodu osasungarriak lortzeko jarduerak preskribatzeko eta jarduera horiek egiten direla kontrolatzeko.
- **Azterketaren diseinua:** Azterketa kliniko ia esperimental (ez-ausazkoa, kontrol-talderik gabea, prospektiboa, konkurrentea). Etxez ELZa erabiltzen duten Basurtoko ESiko 30 paziente eta ELZeko 16 profesional errekrutatutako dira ahultasunaren kudeaketa-eredua eta sistema teknologikoa (plataforma eta sentorikoa) ebaluatzeko. Parte-hartzaileak 70 urteko edo hortik gorako pertsonak izango dira, ahul gisa tipifikatuta daudenak (Jaiki eta ibili testaren arabera) eta egoera egonkorrean daudenak (berriz larriagotu gabe, eriondo egon gabe, ospitaleko alta jaso gabe). Sistema teknologiko bat ezarriko da 70 urtetik gorako pertsonen ahultasuna kudeatzeko. Sistema osatuko dute plataforma batek eta soluzio eramangarri batek. Azken hori egikaritze-testa edo Timed Up and Go (iTUG) testa tresnatzeko da.
- **Emailtzak:**
 - Pertsonak etxean duten ahultasuna diagnostikatzen eta ebaluatzen laguntzeko plataforma.
 - Plataformak aukera emango du paziente bakoitzaren egoeran oinarritutako jarduera fisikoaren preskripzioa pertsonalizatzeko, baita egindako jardueraren eta plataforma burutu ondoren lortutako emaitzen jarraipena egiteko ere.
 - Zerbitzu berri hori esker, sistema teknologiko baten bidez, arreta espezifikoa eta koordinatua eman ahal izango da sistema sozialaren eta sanitarioaren artean. Horrela

etengabeko desorekak saihestuko dira eta, beraz, pazientearen bizi-kalitatea hobetuko da.

- o **Rola:** Kronikgune ZTBESeko erakundeetako bat da, proiektuan azpikontrataturakoa.

- **Akronimoa:** H-NYM
 - **Izen osoa:** Osasun-arloko datu ez-egituratuak anonimizatzeko plataforma bat garatzea, hizkuntza naturalean oinarrituta (*machine learning* eta *blockchain*)
 - **Proiektuaren deialdia:** Hazitek 2020
 - **Erakunde finantzatzailea:** Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Saila.
 - **Koordinatzailea:** NYMIZ
 - **Ikertzaile nagusia:** Javier Mar
 - **Eskatutako finantzaketa:** 0 €
 - **Iraupena:** 2020ko martxoaren 15etik 2022ko abenduaren 31ra.
 - **Deskribapena:** Gaur egun, mundu osoko osasun-sistemak neurriak hartzen ari dira pazienteei eta osasun-zentroei buruzko datuen eta informazioaren hazkundearekin lotuta. Esparru horretan bi joera dibergente daude: batek datuen eskuragarritasuna "liberalizatzeko" beharra azpimarratzen du, argudiatuz beharrezkoak direla ikerketa biomedikoa hobetzeko, aplikazio adimendunak garatzeko eta kalitate sanitarioa hobetzeko. Beste joerak datuen pribatutasunaren alde argudiatzen du, informazioaren pribatutasuna errazteko.
 Ildo horretatik, datuen kalitatea, eta, aldi berean, segurtasunaren eta konfiantzaren aldetik informazioaren pribatutasuna bermatzea dirudi jarraitu beharreko bidea. Pazientei eta osasun-laguntzari buruzko gero eta datu gehiago behar bezala kudeatzeak osasun-arloari lagunduko dio erabaki hobeak hartzen eta osasun-arloko zerbitzu eta produktuen kalitatea hobetzen. Gainera, pazienteen interesak eta pribatutasuna babestuko ditu.
 - **Helburua:** Osasun-arloan sortutako dokumentuetatik datozen datu ez-egituratuen anonimizazioa ahalbidetuko duen plataforma garatzea. Ildo horretatik, hizkuntza naturalean (*machine learning* eta *blockchain*) oinarritutako teknologiak aplikatuta, orain arte, datu pertsonalak babesteko legea dela-eta, erabili ezin den informazioa analizatu ahal izango da. Hauek dira proiektuaren helburu tekniko espezifikoak:
 - 1. helburua: Datuak anonimizatzea
 - 2. helburua: Datu ez-egituratuak
 - 3. helburua: Algoritmoaren % 100eko errendimendua ML eta NLP bidez
 - 4. helburua: Plataforman AA integratzea
 - **Emailtzak:**
 - Anonimizazio-soluzio bat garatzea, Software as a Service (SaaS) ereduan oinarritua, oso sarbide eta interfaze errazekin, legea betetzeko eta informazio konfidentziala lapurtzearen arazoak saihesteko beharrari erantzuteko.
- Rola:** Kronikgune ZTBESeko erakundeetako bat da, proiektuan azpikontrataturakoa.

5.1.4. Erakunde pribatuen ikerketa-proiektuak

Kronikgune Institutuak erakunde pribatuek finantzaturako ikerketa-proiektuak kudeatzen ditu eta horietan parte hartzen du. Osasun Sisteman gero eta garrantzi handiagoa hartzen eta ezartzen ari den paradigma berriari heltzeko eta horretan lan egiteko: balioan oinarritutako medikuntza (*Value-Based HealthCare*, VBHC ingelesezko sigletan), pazienteen osasun-emaizak etengabe hobetzea eta osasun-zerbitzuak eraginkorragoak izatea helburu duen eredua. Esparru estrategiko berritzaile horren helburua da osasun-zerbitzuak bideratzea beren berrantolaketan, pazientearentzat balio handieneko arreta kostu hoberenean emateko helburuarekin.

VBHCak funtsezko hiru elementu konbinatzen ditu:

- 1) Pazienteentzako baliozko osasun-emaizak neurtzeko sistemak ezartzea.
- 2) Asistentzia-jardunbidea antolatzea prozesu edo baldintza klinikoen inguruan.
- 3) Paziente bakoitzeko kostuak kalkulatzeko prozesu osoan.

ICHOM *International Consortium for Health Outcomes Measurement*¹⁶ partzuergoak hainbat patologiatan ebaluatu beharreko gutxieneko emaizak finkatzea helburu duten estandarrak garatu eta argitaratu ditu. Patologia horien artean, minbizi mota guztiak daude. Estandarren definizioa pazientearentzako balio garrantzitsuen kontzepzioan oinarritzen da. Definizio horretan sartzen dira, aldagai kliniko eta administratiboak ez ezik, pazienteek zuzenean jakinarazitako emaizak —*Patient Reported Outcome Measures* (PROMak)—. PROMen bidez jasotako emaizak pazientearen osasun-egoera neurtzen dute, eta informazioa ematen dute gaixotasunak edo haren tratamenduak pazientearen sintomatologian duen eraginaren eta bizi-kalitatearekin lotutako alderdien inguruan.

Ilido horretatik, Kronikgune Institutua bi ikaskuntza-komunitateren zuzendaritza teknikoa koordinatzen eta gauzatzen ari da. Komunitate horietako bat Europakoa da, eta bestea Estatukoa, eta horietan balioan oinarritutako arreta-eredua jorratzen da (*Valued Based Healthcare*, VBHC), ICHOMek hainbat gaixotasunen inguruan argitaratutakoa. VOICE eta EIMPROVE, hurrenez hurren, dira aipatutako komunitateak.

Jarraian, Kronikgune Institutuak parte hartzen duen ikaskuntza-komunitateak eta 2021ean egindako jardura nabariak azaltzen dira:

¹⁶ <https://www.ichom.org/>

- **Izena:** VOICE
- **Izen osoa:** *Valued-based healthcare for Outcomes In breast and lung Cancer in Europe.*
- **Partzuergoa:** Europako 13 ospitale
- **Erakunde laguntzaileak:** Ezkerralde-Enkarterri Gurutzeta ESI eta Donostialdea ESI.
- **Babeslea:** Roche
- **Deskribapena:** "Balioan oinarritutako medikuntza" ("*Valued Based Healthcare*") oinarri duen proiektua diseinatuta dago bularreko minbiziaren eta biriketako minbiziaren osasun-emaizak neurtzeko estandarrak ezartzeko.
- **Helburua:** Ebaluatzea proiektuaren ezarpen-prozesua, jardunbide klinikoan duen eraginkortasuna eta kostuetan duen eragina, bularreko edo biriketako minbizia duen pazientearentzako balio-emaizten neurketan oinarritutako esku-hartze baten prozesuaren arabera multzokatuta. Proiektuaren bigarren mailako helburuen artean daude:
 - Ospitaleen Europa-mailako erkidego aitzindari bat eratzea bularreko eta biriketako minbiziaren osasun-arloko baliozko emaizak ebaluatzen, pazientearen ikuspegia integratuta.
 - Identifikatzea pazientearentzako baliozko emaizten neurketan eta prozesukako arretaren antolaketan oinarritutako esku-hartze bat ezartzeko prozesuan eragina duten faktoreak.
 - Analizatzea pazientearentzako baliozko emaizten neurketan oinarritutako esku-hartzearen eraginkortasuna, ahalduntzea, erabaki partekatutak hartzea eta medikuaren eta pazientearen arteko komunikazio hobetzeko.
 - Ebaluatzea pazientearentzako baliozko emaizten neurketan eta prozesukako arretaren antolaketan oinarritutako esku-hartzeak kostuetan duen eragina, prozesu klinikoaren arabera multzokatuta.
 - Aldeak identifikatzea proiektuaren inplementazioaren, eraginkortasunaren eta kostuetan duen inpaktuaren emaizetan, proiektuan nazioartean parte hartzen duten erakundeen artean (benchmarking).
 - Osasun-arloko baliozko emaizten neurketa txertatzea erakundeen ohiko jardunbide klinikoan, sistematikoki eta luzaroan.
- **Azterketaren diseinua:** Azterketa multizentriko prospektiboa, inplementaziozarpenaren ikerketa-osagai bat eta eraginkortasun-osagai bat konbinatzen dituen, datuak lortzeko eta analizatzeko metodologia kuantitatiboak eta kualitatiboak erabiliz. Analisisak banaka (pazientea) nahiz antolaketa-mailan (kostuak) egingo dira.
- **Emaitzak:**
 - Osakidetzan PROMak biltzeko app bat garatzea.



- Analizatzea pazientearentzako baliozko emaitzen neurketan oinarritutako esku-hartzearen eraginkortasuna, ahalduntzea, erabaki partekatuak hartzea eta medikuaren eta pazientearen arteko komunikazio hobetzeko.
 - Ebaluatzea pazientearentzako baliozko emaitzen neurketan eta prozesukako arretaren antolaketan oinarritutako esku-hartzeak kostuetan duen eragina, prozesu klinikoaren arabera multzokatuta.
 - Osasun-arloko baliozko emaitzen neurketa txertatzea erakundeen ohiko jardunbide klinikoan, sistematikoki eta luzaroan.
- **2021eko jarduera nabariak:**
 - Partzuergoaren bilerak antolatzea, proiektuan zehaztutako zereginen jarraipena egiteko.
 - Bazkideekin alde biko bilerak egitea eta antolatzea, proiektuaren gai espezifikoak lantzeko: analisi ekonomikoa, arketipoak, PROMen definizioa, adierazleak edo beste gai batzuk.
 - Bularreko eta biriketako minbiziari buruzko datu klinikoak biltzeko eskuliburua egitea.
 - Datu ekonomikoak biltzeko eskuliburua egitea.
 - Azterketa Clinical Trials.gov-en erregistratzea.
 - Bazkideen eta Kronikguneren artean datuak prozesatzeko akordioa sinatzea.
 - Bularreko minbiziaren eta biriketako minbiziaren arketipoak definitzea.
 - Bularreko minbiziari eta biriketako minbiziari buruzko datuak analizatzeko adierazleak definitzea.
 - Datu-baseak tratatzeko eskuliburua egitea, pazienteen datuak arazteko, eta txostenak sortzeko prozedura ezartzea.
 - **2021ean aurkeztutako entregagaiak:**
 - Bularreko eta biriketako minbiziaren PROMak mapatzea: *Patient health status' overview in breast cancer: A methodological document*.
 - Bularreko minbizia duten pazienteen arketipoak proposatzea benchmarkingerako.
 - Bularreko minbiziaren adierazleak proposatzea benchmarkingerako.
 - Biriketako minbiziaren adierazleak proposatzea benchmarkingerako.
 - Analisi ekonomikorako metodologia proposatzea.
 - **Rola:** Europako 13 ospitalekin osatutako sarearen koordinazioa eta zuzendaritza teknikoa; eta Ezkerralde-Enkarterri Gurutzeta ESlari eta Donostialdea ESlari jarduerak egiten laguntzea.

- **Akronimoa:** EIIMPROVE
- **Izen osoa:** Balioan oinarritutako medikuntza hesteetako gaixotasun inflamatorioan
- **Partzuergoa:** Espainiako 12 ospitale
- **Erakunde laguntzailea:** Ezkerralde-Enkarterri Gurutzeta ESIa eta Donostialdea ESIa.
- **Babeslea:** Vifor Pharma España SL
- **Deskribapena:** 2018an, HGI hesteetako gaixotasun inflamatorioaren osasun-eremak ebaluatzeko estandarrak argitaratu zituen ICHOMek. HGI etiologia ezezaguneko nahasmendu kroniko bat da, sortzetiko sistema immunearen eta hartutako sistemaren erantzun patologikoa dakarrena. Horren ondorioz, digestio-hodiaren inflamazio kronikoa sortzen da.
- **Helburua:** Osasun eremak konparatiboki ebaluatzea (benchmarking), hesteetako gaixotasun inflamatorioa duten pazienteei ematen zaien arreta hobetzeko. Proiektuak bigarren mailako helburu hauek ditu:
 - ICHOMen set estandarrean oinarritutako osasun-eremak neurketa ohiko jardunbide klinikoan txertatzea, sistematikoki eta luzaroan, eta pazienteek jakinarazitako eremak (PROMak) ohiko jardunbide klinikoan sartzea.
 - Jarraipena eta erabaki klinikoak modu indibidualizatuan har daitezkeen erraztea.
 - Osasun-eremak neurketan oinarritutako esku-hartzearen eraginkortasuna analizatzea, pazientearen ahalduntzea eta paziente-profesional komunikazioa hobetzeko.
 - Ezarpen-prozesuan eragina duten faktoreak identifikatzea.
 - Estatuan ospitaleen komunitate aitzindari bat eratzea HGiko osasun-eremak ebaluazioan, pazientearen ikuspegia integratuta.
 - Erakundeen artean jardunbide egokienak partekatzea; ikaskuntza sortzea.
- **Azterketaren diseinua:** Kohorteen behaketa-azterketa prospektiboa. Honako hauek analizatuko dira:
 - Gaixotasunaren kontrola eta biziraupena: anemia, gaixotasunaren jardura eta erremisioa, kolon eta ondesteko minbizia, erabateko biziraupena edo kausa espezifikoarena.
 - Sintomak, ahalmen funtzionala eta bizi-kalitatea: hestearen sintomak aldatzea, mina eta deserosotasunak, jardura normalak, energia eta nekea, pisua.
 - Erabilgarritasunik eza: konplikazioak ebakuntzetan, esteroideen erabilera.
 - Baliabideen kontsumoa: ospitaleratzeak eta larrialdietara bisitak.
- **Erakundeak:**
 - Analizatzea pazientearentzako baliozko eremak neurketan oinarritutako esku-hartzearen eraginkortasuna, ahalduntzea, erabaki partekatutako hartzea eta medikuaren eta pazientearen arteko komunikazio hobetzeko.



EIIMPROVE

- Ebaluatzea pazientearentzako baliozko emaitzen neurketan eta prozesukako arretaren antolaketan oinarritutako esku-hartzeak kostuetan duen eragina, prozesu klinikoaren arabera multzokatuta.
- Osasun-arloko baliozko emaitzen neurketa txertatzea erakundeen ohiko jardunbide klinikoan, sistematikoki eta luzaroan.
- **2021eko jarduera nabariak:**
